Artikulu honek Euskal Herrian azken 30 urteetan idatzitako arte kritikaren gainbegiratua zabal bat eman nahi du, formatu, egile eta argitalpen nagusiak aurkeztuz eta bilduz. Bestetik, kritikaren balizko corpus baten lehen pausua eta gonbitea ere izan nahiko luke.

Giltza-Hitzak: Artea. Kritika. Euskal Herria. Xabier Saenz de Gorbea.

Este artículo pretende llevar a cabo un amplio repaso a la crítica de arte escrita en Euskal Herria en estos últimos 30 años, presentando y recogiendo los principales formatos, autores y publicaciones. Asimismo, constituiría el primer paso y una invitación para completar un hipotético corpus de la crítica.

Palabras Clave: Arte. Crítica. Euskal Herria. Xabier Saenz de Gorbea.

Cet article procède à un examen exhaustif de la critique d'art écrite en Euskal Herria au cours des 30 dernières années, avec la collecte et présentation des principaux grands formats, auteurs et publications. Il constitue, en outre, une première étape et une invitation à compléter un corpus hypothétique de la critique.

Mots-Clés : Art. Critique. Euskal Herria. Xabier Saenz de Gorbea.

Arte kritika Euskal Herrian azken 30 urteetan. Xabier Saenz de Gorbearen omenez

(Art Criticism in the Basque Country in the last 30 years. In Memory of Xabier Saenz de Gorbea)

Barcenilla García, Haizea*;
Manterola Ispizua, Ismael**
Euskal Herriko Unibertsitatea. Arte Ederretako Fakultatea.
Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa
*haizea.barcenilla@ehu.eus
**ismael.manterola@ehu.eus

BIBLID [0212-7016 (2016), 61: 2; 286-320]

Jaso: 2016.10.10
Onartu: 2016.12.01

Xabier Saenz de Gorbea. Argazkia: Sonia Rueda

2015eko maiatzaren 28an Xabier Saenz de Gorbea arte historialaria, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea, ikertzailea eta arte kritikaria zendu zen. Euskal Herriko arte kritika umezurtz geratzen zela iruditua, gaiaren inguruko azterketa sakon bat egiteko beharra sumatu dugu.

Euskal Herrian egin den eta egiten den arte kritika ez dago apenas ikertuta eta artikulu honen bidez gainbegirada eman nahi diogu gehiegi landu ez den gai honi. Horrekin batera, artikulu honek Xabier Saenz de Gorbearen lanari omenaldi xume bat izan nahi du, berak hainbeste landutako esparrua aztertuta.

1. Sarrera

1.1. Arte kritika

Arte kritika bitartekaritza, hausnarketa, balorazio eta sormenaren artean dagoen idatzizko generoa dela kontuan izan behar dugu. Ariketa kritikoa modernitatearen sorrerari lotuta dagoenez, gure garaiko pentsamenduaren ekinbide tipikoenetakoa eta egokienetakoa dela esan dezakegu. Arte ekinbidearen gaineko hausnarketak behin-behineko balioa badu ere, kritikak balioak finkatzeko asmoa du. Kontraesan horretan ibili zen kritika modernitatearen garaian, nahiz eta postmodernitatera iritsi ondoren, kutsu ezberdina hartu zuen.

Hasiera-hasieratik ere, kritikak esparru ezberdinetara zabaltzeko joera izan zuen; hain zuzen, artearen gaineko iritzia jaio berria izanik, “publiko orokorraren”

ikus-entzuleen multzora bideratu nahi zuten lehendabiziko arte kritikariek. Horregatik egon zen eta egon da kritika hain lotuta komunikabideei. Prentsaren askatasunarekin eta zabalkundearekin batera garatu zen arte kritika eta bi mende baino gehiago egin dituzte elkarrekin. Prentsaren bidezko kritikak behin-behinekotasuna eskatzen du eta unean uneko presa; gainera, irakurle ez jakitun bati zuzenduta dagoenez, guztiok ulertzeko moduko maila izan behar du, bitartekaritzaren ideiak pisua hartzen duelarik.

XIX. mendean artearen gaineko interesa, teoria eta ikerketa garatzen zihoazen heinean, arte praktikaren inguruko hausnarketa sakonagoa hasi zen eta, horren ondorioz, arteari buruzko aldizkariak agertu ziren. Bertan iritzi kritikoak hausnarketari garrantzia handiagoa ematen zion eta bitartekaritza bigarren maila batean geratu zen, balorazioa lehenetsiz. Orduz geroztik, toki handiagoa hartu izan ohi du honek aldizkaritan argitaratzen den kritikan. Luzerak berak eta irakurlearen perfil espezializatuagoak alderdi horiek errazten ditu.

Azkenik, hirugarren kritika mota identifika dezakegu XX. mendearen bigarren erdialdeak asko garatu zuen argitalpen mota bati esker. Erakusketen katalogoak literatura artistikoaren ezinbesteko osagaia bihurtu dira azken urteotan, bai artista baten lana erakusteko eta zabaltzeko, bai artista horien gaineko hausnarketa egiteko, baina baita artearen joeren analisiak eta ikerketak argitaratzeko ere. Sarritan erakusketa handi batzuen katalogoek XX. mende bukaerako artearen nondik norakoak markatu izan dituzte eta horren ondorioz, katalogoak artearen ikerketarako ezinbesteko tresnak bihurtu dira.

Kritikaren hiru alderdi hauek gidatzat hartuta, Hego Euskal Herrian sortzen den kritikaren bidaia proposatzen dugu hurrengo orrialdeotan. Ipar Euskal Herria ez da lan honetan aztertuko, bere kasua ezberdina izanik, ez baitu arte sistema propioa garatu. Ahula izan arren, Hego Euskal Herriak museoak, arte zentroak, galeriak, kritikoak eta artista komunitate txikia osatzea lortu du, beti ere Espainiako sistemarekin dependentzian. Ipar Euskal Herrian ez da horrelakorik ikusten eta Frantziako arte sistemaren barruan disolbatutako bazterreko lurraldea dela esan daiteke. Errepikapenak ekiditeko, beraz, Euskal Herriari buruz hitz egiten dugunean artikulu honetan, Hego Euskal Herria izango da batez ere hizpide.

1.2. Arte kritika Euskal Herrian: aukerak eta hizkuntzak

Hego Euskal Herriko arte sistema hiru irismen-mailatan banatu genezake. Alde batetik Euskal Herriko arte sistema dago, bertako arte praktikei arreta ezarri eta bertako publiko zein adituentzat ekoizten dena. Sistema hori, bestetik, Espainiako arte sistema zabalagoan txertatuta bizi irauteko borrokan dabil. Hau guztia nazioarteko arte sistema boteretsu baten adar ahul eta bigarren mailako batean kokatu behar dugu.

Beraz, arte kritika ere multzo eta azpimultzo horien artean ulertu behar dugu. Oso gutxi dira nazioarteko mailara iristea lortu duen Euskal Herrian sortutako arte kritika. Adibide puntual eta salbuespenezkoak egon badira ere, ez da ohikoa nazioarteko aldizkari eta katalogoko testuak euskal kritikari batek sinatutakoak izatea.

Hurrengo mailara begira jartzen bagara, aldiz, ohikoa izan da eta da, gaur egun ere, Espainiako arte kritikaren barruan euskal arte kritikariak topatzea[1]. Ahul xamarra den Espainiako arte aldizkarien sarean maiztasunez idatzi duten euskal kritikariak topatzea arraroa ez bada ere, sailago izan da Euskal Herriko kritikariak Espainiako prentsan idazten topatzea, are gutxiago Euskal Herriko arteari buruz ez bada. Bertako adierazpenei buruzko euskal kritikarien kolaborazioak maiz ematen dira; euskal kritikari bat Espainiako prentsan nominan izatea, aldiz, oso salbuespenekoa da.

Ohikoena, ondorioz, euskal kritikariak Euskal Herriko arte sistemaren barruan txertatuta egotea da. Orokorrean Euskal Herrian idazten den kritika Euskal Herriko prentsan lan egiten eta kolaboratzen duten kideek idazten dute bertako erakusketei buruz; hala ere, eta gero aztertuko dugunez, ez dira asko honetarako aukera eskaintzen duten komunikabideak. Era berean, Euskal Herriko katalogoetan aurkitzen dira gehienetan euren testuak. Gabezi bat sumatzen da gure testuinguruan ordea: aldizkari espezializaturik apenas ez dagoenez, txikia da bertan halako euskarrientzako idatzitako kritika burutzeko aukera.

Ezaugarri hauek Euskal Herriko arte sistemaren dependentzia agerian uzten du, zaila baita bertan argitaratutako aldizkariak edo maiztasunez arte kritika argitaratzen duen prentsa topatzea, nahiz eta katalogoekin zerbait betetzen den hutsune hori. Aldizkarien gabeziak batez ere egoera markatzen du: honen ondorioz, espezializatutako medioetan argitaratu nahi duen euskal kritikarientzat ezinbestekoa egingo zaie Espainiako arte sistemara jotzea (hegoaldean) edo Frantziakora (iparraldean).

Euskal Herriko arte kritikan kontuan izan behar dugun beste berezitasuna hizkuntzarena da. Orokorrean arte kritika bi hizkuntzetan egiten da, euskaraz eta gaztelaniaz. Hegoaldean tradizio akademiko espainiarrak eta Euskal Herriko artearen sistemak hizkuntza horren alde nabarmen egindako aukerak gaztelaniaz idatzitako arte kritika bultzatu eta prestigioa eman dio. Hala ere, komunikabideak euskara erabiltzen hasi ziren unetik hizkuntza horretan idatzitako kritika ere ohikoa da. Gaztelaniaz idazten duten arte kritikariek oso gutxitan erabiltzen dute euskara, alderantzizkoa ordea ohikoagoa da, hau da, normalean euskaraz idazten duten kritikariek gaztelania ere erabiltzea.

Hala ere, arte kritikan ikusten dugun hizkuntzaren erabilpena Euskal Herriko egoera linguistiko orokorrari lotuta dago. Arte sistema ez autonomo baten ahuleziak eragindako ondorioak dira aldizkari espezializatutako gabeziak eta, horrekin batera, espainiar eta frantziar komunikabide talde handien nagusitasunak oztopo dira euskaraz idatzitako kritikaren garapena bideratzeko.

Azkenik, Euskal Herriko arte sistemak gaztelania nagusitu duenez, erakusketekin batera argitaratzen diren katalogoak orokorrean testuak gaztelaniaz idatzita izaten dituzte, nahiz eta erakunde publikoen esku dauden museo eta arte zentro askok (baina ez guztiek) euskararako itzulpena egiten duten[2]. Horren on-

1. Adibidez, Peio Agirre Espainiako Consejo de Críticos de Artes Visuales elkarteko kide eta zuzendaritzan parte hartu zuen 2005tik aurrera.

2. Euskarazko katalogo-testuei erreportajea zabala eskaini zien Berriako Iñigo Astizek: "Zer hizkuntzatan mintzo da artea?", Berria, 2016/02/05, (http://www.berria.eus/paperekoa/1812/030/001/2016-02-05/zer_hizkuntzatan_mintzo_da_artea.htm 2016/09/17an kontsultatua).

dorioz, arteari buruz euskaraz ditugun ia testu guztiak gaztelaniazkoen itzulpenak dira. Oso arraroa izaten da kontrako bidea aukeratzea, batez ere traba asko egoten delako erakunde publikoen aldetik (itzulpenen gaineko gain-begiraden lan astuna, adibidez). Beraz, euskaraz idazten diren testuak azkenean gaztelaniazko bertsioa eskatzen du, horrek dakarren lanaren bikoizketarekin. Oso gutxitan planteatzen dira hizkuntzaren araberako testu ezberdinen aukerak, itzulpen politika zorrotzegiaren ondorioz.

1.3. Kritikarien perfilak

Beste tokitan gertatzen den bezala, Euskal Herrian kritika idatzi duten eta idazten duten kritikarien perfilak ezberdinak dira. Alde batetik artearen historialariak daude, bestetik artistak edo arte ederren ikasketak egin dituztenak eta, azkenik, filosofia edo estetikaren esparrutik datorren jendea.

Lehenbiziko multzoan, bere lana arte garaikidera bideratu duten arte historia ikasketak egindakoen artean, kritikari ezberdinak daude bai adinari begira, bai formazioari begiratzen badiogu ere. Talde honetan Xabier Saenz de Gorbea izan daiteke adibiderik aipagarriena. Orain dela 30 urte hasitako bidea ia salbuespenekoa izan zen Euskal Herrian, ez baitzegoen garai hartan jende gehiegi arte kritikaren inguruan. Bartzelonan Arte Historia ikasi ondoren, Euskal herrira bueltatu zen EHUko Arte Ederren Fakultatean irakasle lanetan jarduteko. Horrek, eta familiak arte galeriaren jabe izateak, aukera eman zion garaiko arte produkzio garaikideenarekin harreman estua sortzeko. Hurrengo belaunaldiko arte historialarientzat eredu eta bultzatzaile izan zen zalantzarik gabe.

Belaunaldi berdinekoa da Francisco Javier San Martín. Espainiako aldizkari espezializatuetan zein katalogoetan idazten duen kritikaria, estatu mailako erreferentzia bat kontsidera daiteke.

60ko hamarkadan jaiotakoa, Ismael Manterolak, bere aldetik, Valentzian ikasi zuen artearen historia, ondoren EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasle izatera pasaz. Dibulgaziorako kritikan ibilbide luzea du, nahiz eta katalogoetako testu anitz ere landu dituen, hala nola zenbaitetan komisariotza lanak burutu ere.

Denboran aurrera jarraituta, Miren Jaio tarteko belaunaldian kokatu behar dugun arte historialaria da. Zaragozan ikasketak bukatu ondoren Londreseko egonaldia erabakigarria izan zen arte garaikidearen alde lerratzeko eta arte kritika idazten hasteko.

Gazteagoen artean Haizea Barcenilla aukeratu daiteke, arte historia ikasketak Euskal Herrian bertan egindako belaunaldi baten adibide moduan. Gasteizko Letra Fakultatean arte historia ikasketak bukatu ondoren, arte garaikidera eta komisariotzara bideratutako ikasketa zehatzagoak egin zituen Londresen.

Aipagarria da ere Maite Garbayo. EHUn arte historian lizentziatua eta doktorea, kritikara dedikatu da ikerketarekin batera, bizitza motza izan arren Espainia mailan banatu zen PIPA izeneko aldizkaria martxan jartzera helduz.

Azken belaunaldiaren artean, Mikel Onandia, Leyre Goikoetxea eta Garazi Ansa aipatu daitezke, hirurak Gasteizko arte historia ikasketak egindakoak eta masterren bidez espezializatutakoak. Mikel Onandiak eta Garazi Ansak euskaraz idatzi dute batez ere.

Arte ikasketak egindako jendearen artean, bestalde, Peio Agirre izan daiteke adibiderik aipagarriena. EHUko Arte Ederren Fakultatean ikasketak egin ondoren, arte kritikara bideratu zuen bere ibilbidea eta une honetan, Euskal Herriko arte kritikari profesional bakarrenetakoa dela esan daiteke. Beste arte kritikari askorekin gertatzen den modura, kritika eta komisariotza uztartzen ditu.

Multzo honetan Aimar Arriola ere aipatu daiteke. Peio Agirrek bezala, EHUko Arte Ederren Fakultatean ikasketak bukatu ondoren arte komisariotzara eta idaztera bideratu du bere lana.

Agirreren eta Arriolaren ibilbideak arte ikasketak egindako teorikoen kasua erakusten badu ere, badaude arte kritika idatzi izan duten eta idazten duten artistak. Artistak artistei buruz idaztea ez da arraroa nazioarteko kritikan, ezta Espainiako edo Euskal Herriko arte sistemaren barruan ere. Esther Ferreren adibidea jarri daiteke, batez ere Madrilgo *Lapiz* aldizkariaren hasierako garaian izan zuen lana kontuan hartzen badugu. Sarritan elkarrizketak baziren ere, Parisko erakusketen berri ematen zuen beste artikulu askotan.

Beranduago Txus Melendezen adibidea jarri daiteke. *Euskaldunon Egunkariako* arte kritikari moduan jardun zuen urtetan, beranduago *Gara*ko *Mugalarin* ere argitaratu eta katalogotarako testuak idatzi dituelarik.

10 mugalari296 2004 azaroa - 20 larunbata Gara

ARTEA

Miren JAIO

Gutasuna (III)

Aurreko asteetan gure Miss Marple alferrik ibili zen «gutasunaren» bila. Oraingoan taktika aldatuko du. Denok komunikatzeko behar handia dugunez gure ikertzaile pribatua bere miseria propioak arakatzea baino besteek esateko daukatenari adi jarriko da.

Helburu horrekin kalera ekingo dio soinean "La tienda del espía"n erositako X izpiko betaurrekoak eta aurikularrak daramatzala. Ikerketa lana egiteko trafiko handiko kale komertzial baten kantoia aukeratuko du. Poetek kaleak pasio sekretuen lekuko direla esan dute behin eta berriro. Berarekin batera kantoian hotzak hiltzen dabilen publizitate banatzaileari legez, gure ikertzaileari izugarri kostatzen zaio bere aurretik Zara-ko poltsaz kargatuta arineketan pasatzen direnak sekretu konta-

Nueva fórmula expositiva

Un nuevo canal

AUDIOVISUAL

VARIOS

SALA CARLOS III DE LA UPNA. IRUÑEA

HASTA EL 30 DE NOVIEMBRE

Marta E. MARTIN

La Sala de Cultura Carlos III de la UPNA ha inaugurado su nueva temporada expositiva con una nueva fórmula de exhibición, titulada "Abierto en canal". La muestra aglutina seis obras videográficas de otros tantos artistas, con la peculiaridad de que se proyectan en diferentes jornadas de forma cíclica, hasta el próximo día 30.

Ya en el texto introductorio del catálogo que acompaña a la muestra, comisariada por Miguel Pueyo, se incluyen algunos apuntes sobre la dificultad de que el espectador asimile las obras presentadas en soporte vídeo como lo que son: obras artísticas. En cualquier caso, obras de artistas, de lo que se deduce –si en otras ocasiones lo hacemos, en ésta por qué no–: obras de arte. Todo ello, independientemente de su «incorporeidad», su reproductibilidad o su todavía dificultosa comercialización y cuestionada rentabilidad, paliada en parte por el incipiente coleccionismo de este tipo de obras, perdurando más allá de las muestras eventuales.

¿Estamos ante artistas y obras dispares? En cualquier caso, indudablemente contemporáneos y heterogéneos.

En primer lugar, todos ellos trabajan habitualmente en diferentes soportes artísticos, pero utilizan aquí un único vehículo y soporte de exhibición: el DVD. Utilizan, sí no un único idioma expresivo, sí un lenguaje común: el audiovisual –llamémosle videoarte, videocreación, cine experimental, etc–. Vehículo y lenguaje que además es cada vez más accesible y no exclusivamente en el ámbito artístico. Independientemente del formato de origen

Todavía hoy, el espectador tiene dificultades para identificar las obras presentadas en soporte vídeo como lo que realmente son: obras de arte

mentación con material escrito y gráfico proporcionado por las galerías (extractos de prensa, revistas y catálogos). Cabe destacar el cuidado estético y editorial de estas publicaciones, que tantas veces funcionan como soporte argumental y elemento difusor de este tipo de obras, perdurando más allá de las muestras eventuales.

¿Estamos ante artistas y obras dispares? En cualquier caso, indudablemente contemporáneos y heterogéneos.

En primer lugar, todos ellos trabajan habitualmente en diferentes soportes artísticos, pero utilizan aquí un único vehículo y soporte de exhibición: el DVD. Utilizan, sí no un único idioma expresivo, sí un lenguaje común: el audiovisual –llamémosle videoarte, videocreación, cine experimental, etc–. Vehículo y lenguaje que además es cada vez más accesible y no exclusivamente en el ámbito artístico. Independientemente del formato de origen

bullante, echando mano de la técnica más *naïf* para reunir mundos paralelos. Enrique Marty ("Juego de niños: Gomia"), siempre impactante narrador de humores y horrores, trabaja con el surrealismo más escatológico en ficciones escandalosas por obscenas, que resultan, cuando menos, incómodas. No exento de humor ni de atributos dadaístas es el trabajo de Inazio Escudero protagonista de su "Niki", envuelto en una situación aparentemente absurda de la que extrae por medio de la manipulación de la imagen y el soni-

do efectos muy interesantes. Javier Pérez con su "Universo a medida (Métrica Mundis)", también muy atento a lo sensorial, resuelve de forma mucho más sutil y lírica su ficción, su otro mundo, en el que reina también la informidad y la deformidad. Interesado por lo efímero, lo quebradizo y lo volátil, comparte con el "Burn" de Patrick Jolley y Reynold Reynolds –a

Gazteagoen artean, Asier Mendizabal edo Oier Etxeberria aipatu daitezke. Jarraipen handirik gabe, baina tarteka beste artisten erakusketa edo ekimenei buruz idatzi izan dute. Azkenik, Urtzi Ibarguen azken urtetan *Berria* egunkarira lotutako artista da.

Artistentzat prentsa edo aldizkaritako kritika idaztea ohikoa ez bada, artista askok idazten dituzte katalogotarako testuak. Beste artistekin duten konplizitatea edo artista askok nahiago izaten dutelako kideen testuak teoriko hutsenak baino, sarritan ikusten ditugu mota honetako testuak arte katalogoetan.

Xabier Gantzarain ere multzo honetan sailkatu behar dugu, Arte Ederren ikasketak burutu zituelako. Gantzarainen kasuaren bidez historian zehar sarritan ikusi dugun beste arte kritiko mota bat ere ezagutu dezakegu: idazle kritikoarena. Adibide ezagunena Charles Baudelaire izan bazen ere, idazle askok sarritan egin dute arte kritikara salto, kritikaren ariketa literarioa azpimarratzeko.

Filosofiaren multzo ezberdinetatik arte teoria eta estetika ikasketak egindakoen artean Fernando Golvano aipatuko dugu. EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko kide da eta estetikako irakasgaien ardura du. Nahiz eta prentsarako kritika zehazki ez idatzi, aldizkarietako eta katalogo askotarako testuak idatzi ditu, beraz, parte aktiboa da Euskal Herriko artearen eztabaidan. Beste arte kritikari asko bezala, komisariotzako lanarekin uztartzen du kritika.

Hurrengo belaunaldian kokatuko genuke Jaime Cuenca. Filosofian lizentziatua, Giza eta gizarte zientzietako doktore ikastaroak egin zituen. Deustuko Unibertsitateko Aisiako Ikaskuntzen Institutuko irakaslea izan da eta Bilboko giro artistikoari lotuta dago. Arte kritika idatzi du, hala nola hainbat katalogorako testuak.

Antzeko adibidea dugu Iskandar Rementeriarena. Filosofian lizentziatua eta arte garaikideko tesi batekin doktore, maiz idatzi ditu artistentzako katalogo testuak.

Askotan aipatu dugun bezala, arte kritikarien perfila sarritan komisario lanekin lotuta dago. Ohikoa izaten da arte kritika eta komisariotza lan beraren bi alderdi izatea, azken finean, bi lanetarako artisten lanak sakonki ezagutu eta aztertzeko gaitasuna izan behar delako, eta komisariotzako planteamenduak kritikan garatutako ideia eta teorietan oinarritzen direlako askotan. Hala ere, aipatutakoen artean hainbat dira idazteari lehentasuna eskaintzen diotena, Javier San Martín edo Miren Jaio kasu.

Historikoki Xabier Saenz de Gorbeak ondo ordezkatzen du arte kritika eta komisariotza lana elkartu duten profesionalen perfila. Erakusketa monografikoak zein taldekoak antolatzen eskarmentua izateaz gainera, katalogotako testuak eta prentsa idatzian jardun zuen.

Hala ere, Euskal Herrian kritika eta komisariotza elkartu dituztenen artean Peio Agirre da adibiderik garbiena, *freelance* moduan lan egiten duelako, irakaskuntzari edo erakunde bati lotuta egon gabe eta aitorpen handia izanik batez ere Espainian, baina baita hainbat nazioarteko testuinguruetan ere.

Haizea Barcenillak edo Fernando Golvanok aldiz bi zereginak orekan mantendu dituzte, kritika idatziz (Barcenillak komunikabide eta katalogoetan, Golvanok aldizkari espezializatu eta katalogoetan gehiago) eta erakusketak antolatuz. Gazteagoen artean aldiz zaila da komisariotza lana eta kritikaren arteko oreka mantentzea, azken urtetan erakundeek erabaki duten diru murrizketa dela eta. Urteroko programan erakusketen kopurua jaitsi da; hauetako askok museoko komisarioek beraiek antolatzen dituzte, eta beste komisario batzuk gonbidatzekotan, ibilbidea duten komisarioak lehenesten dira. Hala ere, Leyre Goikoetxeak bidea zabaldu du erakusketen komisariotzan azken urtetan.

Arte kritikari lotuta egon den beste lanbidea irakaslearena izan da. Asko dira unibertsitateko irakaskuntza eta arte kritika elkar uztartu dutenak. EHU/UPVko artearen historia saileko kide izan dira arte kritikari asko: Xabier Saenz de Gorbea, Adelina Moya, Javier San Martin, Ismael Manterola, Haizea Barcenilla, e.a.[3], baina beste sailetara lotutakoak ere badaude, adibidez lehen aipatutako Filosofia fakultatera, Fernando Golvanoren kasuan, Pintura Sailera, Txus Melendezen kasuan, Ikus-entzunezko komunikazioa eta publizitatea, Ramon Esparzaren kasuan edo Deustuko Aisiako Ikasketetara Jaime Cuencaren kasuan.

1.4. Bokazioak sortzen. Artelekuko kritika tailerra

Kritikarako formazioa eta praktikarako aukera eskaini duten plataformak ez dira anitzak izan Euskal Herrian. Dena den, badira azpimarratu daitezkeen une garrantzitsu pare bat. Lehena 1993. urtean koka genezake, Artelekuk arte kritika tailerra antolatu zuenean Martuteneko egoitzan. Ez zen ohikoa Artelekurentzat horrelako tailerrak antolatzea, arte praktikara begira egoten baitziren normalean, baina esparruan zeuden hutsune nabarmenak antzemanda, zuzendaritzak eta aholkulariek honelako tailer teoriko praktikoaren beharra ikusi zuten.

Tailerraren helburua eduki teorikoak aztertzea eta ariketa praktikoak egitera bultzatzea zen, Artelekuk antolatzen zituen beste tailerren antzera. Tailer honetan, noski, artelanen ordez idatziak izan ziren emaitzak.

Garai hartako Espainiako bi kritikari oso ezberdinen ardurapean egon zen tailerra. Hilabete iraun zuen tailerraren lehen hamabostaldia Juan Manuel Bonetek zuzendu zuen; bigarrena, Jose Luis Brearen esku geratu zen. Bakoitzak bere kutsua eman zion tailerrari, ikuspegi desberdinetatik hartuz: lehenak kritika eta literaturaren arteko harremanetan gehiago oinarritu bazen, bigarrenak kritika eta filosofia elkartu zituen. Biek lan-saioak antolatu zituzten, gonbidatuekin eta garai hartako material ugariekin.

Kritika tailerrak komisariotza onartzen zuen bere baitan, arduradun bakoitzak erakusketa bat antolatu baitzuen ariketa horren nondik norakoak ikasleen aurrean azaltzeko. *Amets Geometrikoak* izan zen Boneten erakusketaren izena, Break *Profanoen argitasunak: Artearen Egintasuna* prestatu zuen bitartean. Bi erakusketetarako katalogoa ekoiztu zen, bakoitzean komisarioaren testu kritiko bat gehituz. Bi erakusketa horien bidez ikasleek komisariotzaren prozesuak bertatik-bertara aztertzeko aukera izan zuten, hala nola, komisario bakoitzaren planteamenduen eta estrategien aplikazioa. Izan ere, bi adibideak oso ezberdinak baitziren eta bakoitzak komisarioaren pentsamendu ildoak oso ondo islatzen baitzituzten.

Horrekin batera, tailerraren bi arduradunek garai hartako kritikari ospetsuenak gonbidatu zituzten Artelekuko egoitzan hitzaldiak edo ikasleekin topaketak egiteko. Adibidez, Jose Luis Break gonbidatutakoen artean Jose Lebrero Stals, Ana Martinez-Collado eta Manel Clot azpimarratuko ditugu. Profesional hauen esperientziak zuzenean jasotzeak tailerreko edukiak asko aberastu zituen.

---

3. Miren Jaio eta Maite Garbayo ere sail horretako kide izan dira epealdi zehatzetan.

Kritika tailerra

Zuzendariak: **Juan Manuel Bonet - José Luis Brea**

Irailaren 1etik 30era

Juan Manuel Bonet (1etik 15era)

KRITIKARIA ARTISTA GISA

Kritikariaren lanbideaz gogoeta egitea da kontua, jokabide batzuk proposatzea, kontutan harturik izen hori merezi duen arte kritika, Baudelairegandik aurrera, poetek egin dutela, eta guar-gaurkoz ez dela tradizio hoberik kritika literaturaren jenero dela eta subjetibotasuna dela haren erroa kontsideratzen duena besterik.

Ikastaroaren lehenengo egunetan autore frantsesak landuko dira, hala nola Baudelaire (Delacroix-i eta Guys-i buruzko testuak), Apollinaire (Pintore kubistak), André Breton (Surrealismoa eta pintura), Aragon (Collage-ak), Michel Tapié ("art autre" delakoari buruzko testuak) edo Charles Estienne (tatxismoari buruzko testuak). Arteari buruzko testuak ere aztertuko dira, bai teorikoak bai erabat poetikoak, beste herrialdetako idazleek eginak –Marinetti, Pound, Octavio Paz, Ashbery edo Frank O'Hara-renak, esaterako– eta ardura berezia eskainiko zaie gazteleerazko irakurketei (Ramón Gómez de la Serna, Eugenio d'Ors, Junoy, Cirlot) eta hainbat sortzaile mugalarik artearen eta literaturaren artean egiten dituzten hartu-emanak.

Ikastaroaren bigarren fasean, eta kritikak historiaren etengabeko ezagueran eta berrazterketan funts har dezan beharra kontsideratuz, halako azterbide batzuk proposatuko dira arte modernoari buruz, haren historia linealen gabeziak azpimarratuz. Kasu konkretu batzuk aztertuko dira, ardura berezia eskainiz bi alor desberdini: batetik, metafisika eta Valori Plastici-arena, eta bestetik, "pintura poetikoa" dei genezakeenarena, Klee-ren ildoko sortzaile erteuropar jakin batzuetan exenplu hartzen duena.

Ikastaroaren hirugarren faseak gogoeta bat proposatuko du kritikariaren lanari buruz , hura erakusketa antolatzaile den aldetik. Ikuspegi horretatik **Amets geometrikoak** ERAKUSKETA aztertuko da, konkretuki, ikastaroaren beste alderdi bat bezala antolatuko baita, eta oinarri geometrikoa duten lanez osatuko da –haiei norberak bere ikuspegia ematen badie ere, eta **José Ramon Amondarain, José María Báez, Victoria Civera, Alejandro Corujeira, Dis Berlin, Ángel Guache, Luis Palmero, Antonio Rojas, Juan Uslé eta Xesus Vázquez**-en katalogoan bakoitzak idatzitako testuetan ikusi ahal izango da hori.

Ikastaroaren laugarren eta azken fasean arketa praktiko batzuk proposatuko dira: modernitateren erdiguneko autore batzuen –Matisse, Mondrian, Rothko edo Tanguy, esaterako– obra jakin batzuei buruzko testu erredakzioa, eta aitzitik, bestek jorratutako bideez kanpora beren obra hazi duten italiar jakin batzuez ere bai, –Reverón, Sima edo Meret Oppenheim, adibidez–. Garai horretan Donostiako museo edo galerietan zabalik dauden erakusketei buruzko arketa praktikoak egingo dira halaber, eta **Amets geometrikoak** erakusketari berari buruz ere bai.

Ikastaro honen markoan parte hartuko dute hitzaldi sendoak emanez honako pertsona hauek: **Enrique Ruiz** ("Pintura afizioaren eta kritikaren artean"), **Dis Berlin** ("Seme galduaren itzulera"), **Emmanuel Guigon** ("André Breton eta pintura), **Xesús Vázquez** ("Artea eta poesia").

TAILERRA

Arduraduna: **Juan Manuel BONET eta José Luis BREA.**

Iraupena: 1993ko Irailaren 1etik 30era.

Ordutegia: Tailerra zabalik 9etatik 20etara, astelehenetik ostiralera.

Partehartzaileen gehienezko kopurua: 15.

Matrikula: 13.000 pta.

José Luis Brea (15etik 30era)

PROFANOEN ARGITASUNAK: KRITIKAREN EGINKIZUNA

Tailer honek bi helburu ditu: alde batetik, artearen kritikak gaur egungo gizarteetan zer eginkizun bete beharko lukeen gogoeta egitea; eta bestetik, eginkizun horri aurre egiteko bide eman dezaketen eredu esperimental eraginkor batzuk lantzea.

Tailer honek, beraz, dimentsio teorikoa eta praktikoa izango du.

Lehenengoa, testu sail bat eta kritikaren oinarrizko ereduak aztertuz landuko da (Nietzsche eta Benjamin-engandik Derrida eta Paul de Man-enganaino joango dira kritikaren eredu horiek; eta bestalde, karitikaren egungo testuen azterketara bilduko dira, Hal Foster eta Rosalind Krauss-engandik Craig Owens edo Donal Kuspit-enganaino). Bigarrena, kritikaren praktikako ariketa eraginkor desberdinak landuz, erakusketen erreseinatik hasi eta aldizkari espezializatuetako azterketa artikuluraino.

Ikuspuntu honetatik ardura berezia eskainiko zaio erakusketen antolaketari, gaur egungo gizarteen ezaugarri den *mass media* kulturaren testuinguruan kritikaren adierazpena tresna bereziki interesgarria den aldetik. Kontzeptuaren alderdiak landuko dira batez ere, baina haien antolaketaren inguruko teknika arazoak alde batera utzi gabe.

Tailerrak aurrera egin ahala ERAKUSKETA BAT **–Profanoen argitasunak: kritikaren eginkizuna–** antolatuko da eta xehe-xehe aztertu eta egituratuko da erakusketa aurreko prozesu osoa. Horretako, erakusketarekin batera zabalduko den argitalpeneko dokumentazio zabalaz gainera, erakusketan parte hartuko duten artistak ere etorriko dira tailerrera **—Ignasi Abali, Pep Agut, Salomé Cuesta, Laboratorio de Luz** delakoa, **José Maldonado** eta *La Société Anonyme*. Era berean, ikastarora gonbidatutako hizlari gisa hartuko dute parte bertan **José Lebrero** eta **Ana Martínez-Collado**k ere, eta **Profanoen argitasunak: kritikaren eginkizuna** erakusketaren kontzeptua lantzeko prozesuan parte hartuak izango direnez, haren gaiaz, prozesuaz, edukiaz eta gauzatzeaz mintzatuko dira.

OINARRIAK

INSCRIPCION: Interesa duten pertsona guztiek eska dezakete tailerrean inskribatzeko.

Inskripzioa egiteko honekin batera doan inskripzio orria eta curriculum vitae-a aurkeztuko dira ARTELEKUn, **1993ko Abuztuaren 20a arte.**

ONARPENA: Mindegiaren arduradunak aukeratuko ditu tailerreko partehartzaileak, hautapena apelaezina izango da. Ikastarorako onarpena pertsonalki jakinaraziko da.

ORDAINKETA: Partehartzaileek tailerraren lehen egunean aurkeztu beharko dute Kutxan (k/k.aren zenbakia: 132947/3) matrikula ordaindu izanaren agiria.

MATERIALA: Lanean erabiliko den materialaren kostua Artelekuren kontura doa.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ARTELEKU

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

Artelekuk antolatutako tailer honek 90eko hamarkadan Euskal herriko arte kritika suspertu zuen, bertan parte hartu baitzuten hurrengo urteetan kritikaren alorrean lan egin zuten kritikari askok, tartean Peio Agirre, Miren Jaio eta Ismael Manterola.

Kritikaren gaineko teoria gutxi eta tailer praktiko asko ez zeuden garaian bultzada izugarria izan zen bertan parte hartutakoentzat. Kontuan izan behar dugu

Euskal Herrian eta Espainian orokorrean ez zela ohikoa kritikaren inguruko hausnarketa eta askoz ere gutxiago praktikara bultzatzen zuen tailer edo kurtsorik. Horri gehitu behar diogu urte haietan oraindik ingelesetik itzuli gabe eta Espainian argitaratu gabe zeudela kritika material ugari, Estatu Batuetatik zetorren kritika postmodernoa eta Europako estrukturalismoa eta dekonstrukzionismoarekin lotutakoak batez ere.

Ez da harritzekoa Artelekuko kritika tailerrak Gipuzkoako arte zentroko garai aktiboenarekin bat egitea. Urte haietan pentsamenduari, estetika eta arte teoriari eskainitako mintegiak antolatzen ziren urtero Francisco Jarautaren ardurapean, beste arte tailer praktikoekin zein erakusketa programa indartsuarekin batera, beraz, Artelekun giro egokia zegoen arte kritikan hasi nahi zuen jendearentzat[4]. Aktibitate horrek ez zuen soilik arte sormenaren gaineko eragina izan; alegia, oraindik hastapenetan zegoen arte kritikari bultzada garrantzitsua emateko balio izan zuen.

Aipatu beharra dago tailer horrek arrakasta nabaria izan bazuen ere, orduz geroztik ez dela antzeko saiakera seriorik egin kritikara zuzenduko diren idazleak sustatzeko. Eman izan dira motzagoak izan diren tailerrak Artium museoan zein beste espazio txikiagoetan, Abisal espazioa kasu, Peio Agirreren esku esate baterako, baina inoiz ez dute izan Artelekuko tailerraren aurrekontua, iraupena ezta izpiritu sortzaile eta ekintzailea. Ondorioz, hurrengo belaunaldietan kritikara bideratu diren idazleek kanpoan jaso dute formazioa (Bartzelonan, Madrilen edo Londresen) edo era autodidakta batean jardun izan dira. Formazio eta sustapen ahulezia honek badu bere eragina, azalduko diren beste ezaugarri batzuekin batera, kritikan diharduten belaunaldi gazteagoen eskasian, ezegonkortasunean eta jarraikortasun faltan.

1.5. Corpus baten beharra

Formazio eskasi honekin batera, bada erraz suma daitekeen beste bat: Euskal Herrian idatzitako arte kritika ezagutzeko tresna egokia izango litzateke testuen bilduma antolatua. Batez ere euskaraz idatzitako testuen corpusa falta dela sumatzen da hizkuntza horretan idazten dutenen artean. Arazo hau hainbatetan hizpide izan den arren, momentuz ez dugu horrelako tresnarik, ezta hau burutzeko epe motzerako proiekturik[5].

Halako planteamendua, ordea, ez da utopikoa, beste esparru batzuekin alderatuz ez baita horrenbeste Euskal Herrian arteari buruz idatzi dena. Gainera, komunikabide zein arte zentro askok euren baliabide gehienak digitalizatuak dituzte dagoeneko. Katalogazioaren lehendabiziko lana euskal prentsan arteari buruz idatzitakoa biltzea izango litzateke, gero gaztelaniazkoan euskal arteari buruz Euskal Herriko kritikoek idatzi dutena jasotzeko, euskarazko bibliografia baita une honetan erreferentzia-biltegi baten beharrik handiena duena.

Testuen bildumak aukera asko irekiko lituzke: idazleen zerrendatze bat lortuko genuke, epe motzetan idatzi eta ondorioz agian ahaztuta geratu diren auto-

4. Artelekun garai hartan zegoen giroarekin konturatzeko, kritika tailerra antolatu zen urtean, 1993an, 22 ekimen ezberdin antolatu ziren tailer, mintegi, hitzaldi eta erakusketen artean.

5. Bide honetan oso hasierako pausu bat eman zen Artelekun, Mugalari gehigarriko ale guztiak digitalizatu zirenean 2014-2015 urtean. Dena dela, artxibategi hori isolatua eta zabaldu gabe geratu da.

reak berreskuratuz; bestalde, kritikoen perfila zehaztea ere errazago izango litzateke. Artistei buruzko testuak eskuragarri izango zituzten ikertzaileek, eta garai bakoitzean garrantzia izan zuten gai zehatzak identifikatu ahalko genituzke. Ikerketarako tresna bikaina litzateke halako bilduma, euskal artearen sarearen berri emateaz gainera, ikusgarritasuna nola banatzen den eta erakusketa-esparru bakoitzaren berezitasunak aztertzen lagunduko lukeelako.

Literaturan dagoeneko horrelako ereduak badaude. Esaterako, Susa argitaletxeak sarean jarritako *Armiarma* izeneko web orriak eredu ederra eskaintzen du, arte plastikoetako kritikarako guztiz erabilgarria litzatekeena, begirada azkar batean zerri buruz eta zeinek idatzi duen ezagutzeko tresna aparta izanik. Halako baliabide batek tradizioaren sentsazioa areagotuko luke, istmo isolatuen sentimendua apurtuz, eta horretaz gainera lexikoaren eta espresioen erabilpenei dagokionez, akordio batzuk finkatzen eta aurrekariak ezartzen lagunduko luke, idazle berrientzako tresna oinarrizkoan bihurtuz.

Halako errekurtso baten faltan, baina hau burutzeko irizpide batzuk eskaintzeko asmoz, artikulu honetan kritika mota desberdinetan ibilitako komunikabide, kritikari eta aldizkarien errepaso zabal bat egin nahiko genuke, hurrengo pausu baterako lagungarri izan daitekeelakoan. Horretarako, banan-banan landuko ditugu arestian desberdindu ditugun hiru kritikako esparruak: prentsa kritika, aldizkarietakoa eta katalogoetan idatzitakoa.

2. Kritikaren formatuak eta euskarriak

2.1. Prentsa kritika

Egunkariak dira arte kritikaren esparru ezagunena, gizartearen alderdi zabalenari iristen zaiona. Eguneroko prentsak aspalditik izan du kultur ekimenen berri eta balorazio kritikoa egiteko beharra, eta euskarriak zein irakurlegoaren perfilak eragin zuzena izan du kritika honetan erabiltzen den formatu eta hizkuntz motan. Informazioa eta formazioa orekatzen duen kritika mota da egunkarietan argitaratzen dena, eta kontuan izaten du irakurlea ez dela espezializatua. Horregatik erabiltzen den hizkuntza orotarikoa izaten da, ahalik eta jende gehiagorengana iristeko. Luzera aldetik ere labur xamarra izan behar du eta hitz gutxitan kontzentratu behar du aurrean aipatutako informazio eta formazio asmo hori.

Aldizkarietan eta katalogoetan idazten diren testuen aldean, kritika mota honen behin-behinekotasuna ere handiagoa da, hau da, argitaratzen den unean balio zehatza du eta gutxitan irauten du. Izan ere, ez da artistaren lan orokorraren gaineko hausnarketa izaten, epealdi baterako soilik muntatu den erakusketa baten ingurukoa baizik, eta erakusketa hori desagertzearekin batera iraungitzen dela esan genezake. Prentsako kritikak ez du bere baitan transzendentzia asmorik. Sarritan denborari lotutako kontzientzi horrek arriskua du eta zaila izaten da beti asmatzea, horregatik behin-behinekotasuna onartu beharreko baldintza da prentsarako idazten den kritikaren kasuan.

Bestalde, prentsako kritikak kutsu edo alderdi didaktikoa du, irakurle ez espezializatuari erakusketan aurkezten dena testuinguru zehatz batean kokatu behar

zaiolako. Suposatzen dugu irakurleari gehiegi ezagutzen ez duen esparru batean gida lana egin behar diogula eta horrek hizkuntza xehe eta erreferentzi ez oso zailak eskatzen ditu. Horrek, ordea, idazleentzako suposatzen ditu zailtasun handienak, espazio murriztu batean testuinguruaren ikuspegi orokorra, erakusketan ikus daitekeenaren deskribapen xumea eta ikuspegi kritikoa luzatu behar duelako, termino teknikoegietan erori gabe eta kontzeptu konplexuak, hutsaldu gabe, ahalik eta era zuzen eta sinpleenean azalduz. Prentsa kritikaren ezaugarria, beraz, ulerterraztasuna izango da. Didaktikotasunarekin batera, prentsarako idatzitako kritikak ikusten ez diren gauzak deskribatzeko ahalmena izan beharko du. Ezaugarri honek hizkuntzaren erabilpen berezia eskatzen du.

Euskal Herriko gaur egungo prentsan ezberdintasun handiak ikusten ditugu. Alde batetik bertan ekoiztutako prentsa egongo litzateke, eta horren barruan ere bereizketa egin beharko genuke hizkuntzaren arabera: *Berria* egunkaria euskaraz osorik argitaratzen den kazeta bakarra da. Gaztelaniaz edo ia osorik gaztelaniaz argitaratutako Euskal Herriko prentsan daude *Gara*, Noticias taldekoak (*Deia*, *Diario de Noticias de Alava, Diario de Noticias de Navarra* eta *Noticias de Gipuzkoa*) eta *Diario de Navarra*. Espainiako komunikabide talde handien parte izan arren, Euskal Herrian ekoiztutako egunkarien artean Bilboko *El Correo* eta Donostiako *Diario Vasco* dauzkagu. Azkenik, Espainiako eta Frantziako egunkari handiek Euskal Herriko erakusketen berri ematen dute sarritan, bai gehigarri berezien bidez edo ohiko kultur orrietan: *El País, ABC* eta *El Mundo*, hedapen handiena dutenak aipatzearren. Iparraldeko prentsan *Sud Ouest* egunkariak Frantziako estatuko ikuspuntua mantentzen badu ere, Akitania eskualdera bideratuta dago.

Arte kritikaren ikuspuntutik begiratuta, alde handia dago aipatutako egunkarien artean. Gutxi dira arte kritika jarraian eta maiztasunez argitaratzen dutenak. Horien artean *Berria* egunkaria bereizi behar dugu, astero-astero arte kritikari orri bat eskaintzen diolako, bertan arte kritika eta arteari buruzko iritzi artikulua argitaratuz. Bestalde, *Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak kritika elkar banatzen dute. Sasoi batean larunbatetan argitaratzen ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako arte kritikak, gaur egun Gipuzkoarako besterik ez da argitaratzen, nahiz eta, esan bezala, Bizkaiko edizioan ere argitaratu. Ortzadar gehigarrian noizean behin erakusketa handi baten kritika ere agertzen da, baina ez da honetarako atal egonkorrik.

Gara egunkariaren kasua ondoren zabalduko da, baina laburbilduz, 2000 eta 2011 artean kulturari dedikatutako gehigarria izan zuen. Hau inprimatzeari utzi ziotenean, egunkarian bertan sartu zituzten kritikak noizbehinka, azkenik K7 izeneko aste buruko gehigarrian gehituz arteari dedikatutako idatziak. Bertan azaltzen dira tarteka arteari buruzko berriak, erreportajeak edo iruzkinak, Panoramika izeneko atalean batez ere.

El Correok, Diario Vascok eta *Diario de Navarrak* ez dute arte kritikarik argitaratzen, nahiz eta 90eko hamarkadan argitaratu zuten. Gehienez aste buruko gehigarrietan arteari buruzko erreportajeren bat argitaratzen dute, adibidez *El Correo*ren *On extra Territorios* delakoan.

Bestalde, *El País, ABC* eta *El Mundo* egunkariek Euskal Herriko artearen kritika argitaratzen dute Espainiako estatuko beste edozein tokitakoaren mailan. Garai batean egunkari hauetako batzuek Euskal Herrian finkatutako arte kritikoak erabiltzen bazituen ere, gaur egun Madrildik bertara bidaltzen dituzte kritikariak era-

kusketa zehatz batzuek ikustera gero beraien egunkarietako ale berezietan argitaratzeko (*Babelia, ABC cultural, El Cultural*). Hala ere, salbuespenak daude, *El Mundo* egunkariak argitaratzen duen *El Cultural* delakoan Ramon Esparza kritikarien artikuluak argitaratzen baititu 2001. urtetik gaur egunera. Nahiz eta Euskal Herriko erakusketei buruz bakarrik ez idatzi, Euskal herriko erakusketak Esparzak berak iruzkintzen ditu.

gara • 2000ko abenduaren 9a, larunbata

mugalari 9

ARTEA

Artea eta zientzia, traszendentziaren bila

Denbora, laugarren dimentsioa

Elena Asins artistak Donostiako Altxerrin paratu du bere azken erakusketa. Artista hau Madrilen jaio zen, Europan zehar bizi izan da, Estatu Batuetan ere bai, egun Azpiroztzen bizi eta lan egiten du. Pasa den urtean, bere lana Irufiean ikusteko aukera izan genuen. Arte garaikidearen ikastarotxo bat eman zuen bertan. Langile nekaezina dugu dama hau. Orain dela 30 urte baino gehiago arte eta konputagailuen arteko harremanak ikertzen diharduena. Mundu osoan zehar egin izan ditu erakusketak. Bere artelanak museoetan eta interneten daude, Madrilgo Reina Sofiako museoan, besteak beste. Kontu politikoekin konprometitua da, pertsona gisa. Nahiz eta bere lanaren itxura, lehen begiradapean, oso «minimala» eta oso «espaziala» iruditu, bere artea poetikoa eta denboraren dimentsioan oinarritua dela esan daiteke zalantza izpirik gabe.

Pernan GOÑI

Artea mundua ulertzeko baliagarri izan daiteke. Zaila da asmatzen errealitatea zer den, azaltzeko dugun baliabidea tikarekin. Konputazioa dugu bere lanaren zutabe bat: «Beti pentsatzen dut konputagailuarekin, bera da nire burmuina eta nire eskuak» dio erakusketaren katalogoan

Artearen historia azter dezakegu ikuspuntu askotatik, horietariko bat hau izan daiteke: harmoniaren aldeko uneak versus kaosaren aldekoak. Harmoniaren alde:

Conf/yturralde.htm, oso interesgarria da), besteak beste.

Elena Asins ez da soilik forma hutsez ari bere lanetan: traszendentzia eta monumen-

2.1.1. Euskal Herriko prentsa

Esan bezala euskaraz argitaratutako prentsak hasiera-hasieratik egin zion tokia arte kritikari. Euskal kulturari emandako garrantzia euskal prentsaren ezaugarri izateko borondatez 1990. urtean jaiotako *Euskaldunon Egunkaria* izeneko lehen kazetak literatura, zinema, musika, antzerkia, dantza eta beste kultur ekimenen kritikari tokia egin zion. Arte kritikak ere bere tokia izan behar zuela kontuan izanda, lehenbiziko arte kritikak Arte Ederren Fakultateko pintura irakaslea zen Txus Melendezek idatzi zituen. Txus Melendezek utzi ondoren Asier Perez artistak hartu zuen arte kritikarako ardura. 1995etik aurrera Ismael Manterolaren esku geratu zen *Euskaldunon Egunkaria*ko kritikaren ardura eta egunkariaren behartutako itxiera arte mantendu zen, 2003an.

Egunkarian argitaratzen zen arte kritikak ez zuen maiztasun jakinik eta kritikariak erakusketa ikusi eta artikulua idatzi ondoren argitaratzen zen.

Egunkariaren itxierarekin euskal prentsak behin-behineko erresistentzia egunkaria argitaratu zuen Espainiako gobernuaren debekuari aurre egiteko. *Eguna* izeneko egunkari txikiak normaltasuna mantentzen saiatu zenez, kritikak argitaratu zituen, tartean arte kritikak.

2003. urtean *Berria* egunkaria sortu zenean *Egunkaria*k hasitako bideari jarraitzea erabaki zen eta kultur arloko kritikei tokia egin zitzaion. *Egunkaria*rekin alderatuta, *Berria*ko arte kritika maiztasun zehatza izatera pasa zen. Hasiera batean larunbateko kultur orrietan argitaratu ziren, beste kultur esparruko berri eta kritikekin batera. Aurrerapauso handia izen zen kritikaren normaltasunerako, *Egunkaria*n kritikak idatzi ahala argitaratzen baitziren. Ordutik aurrera, aste burukoak erreferentziazko orriak bihurtu ziren euskal kulturarako. 2005etik aurrera *Berria* egunkariak gaur egun arte mantendu den formula argitaratu zuen: arteari bitan banatutako orri bat eskaintzen zaio, erakusketa baten kritika ohikoarekin batera iritzi artikulu labur bat argitaratzen baita. Horrela, kritika egunerokotasuna izan dezakeen arteari buruzko iritzi artikulu batekin batera osatzen da. Arte kritikak Ismael Manterolaren esku jarraitzen zuen bitartean, iritzi artikulua Xabier Gantzarainek idazten zuen.

Orri horietan argitaratzen zen arte kritika Ismael Manterolaren esku geratu zen 2007ko ekainera arte, orduan iritzi artikulua idaztera pasa eta Haizea Barcenilla eta Nere Lujanbiok hartu zutelarik kritikaren lekukoa. Urtebete beranduago Haizea Barcenillak hartu zuen asteroko kritikaren ardura, 2009ko ekainean Mikel Onandiarekin tartekatzera pasa zen arte. Hortik aurrera, beti tartekatu izan da kritikaren lana. 2011n Mikel Onandiak Oihana Garrorekin elkar banatu zituen kritika artikuluak. 2012ko martxoan Urtzi Ibarguen hasi zen kritika lanetan, bere artikuluak Mikel Onandiak idatzitakoekin tartekatzeko. 2015ean Mikel Onandiak kritika idazteari utzi ondoren Garazi Ansa da Urtzi Ibarguenekin elkar txandakatzen dena asteko arte orrietan gaur egunera arte[6]. Ikusten denez, *Berria* egunkaria euskaraz idatzitako arte kritikarako eskola izan da. Orain dela 10 urte euskaraz idatzitako arte kritika salbuespenezko esparrua bazen ere, gaur egun normaltasun handiz hartzen den lana dela esan daiteke.

Hala ere, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* ez dira izan euskaraz idatzitako prentsako arte kritikaren esparru bakarra. Urte batzuek lehenago *Egin* egunkariak arte kritika idazteko urratsa eman zuen, nahiz eta erregulartasun handirik ez izan. Xabier Egusutek sinatzen zituen arte kritika gehienak, nahiz eta Ismael Manterolak ere bakar batzuek idatzi 1990. eta 1991. urte bitartean. Gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu ziren *Egin* egunkariko kritikak.

Egin egunkariaren itxieraren ondoren lehenbiziko esperientzia hauek ezerezean geratu ziren *Gara* egunkariaren sorrera arte, 1999an. Egunkari berriak kultura gehigarria izan behar zuela erabaki zuen. *El Pais* egunkariak argitaratzen zuen *Babelia*ren ereduari jarraitutako *Mugalari* izenarekin 2000. urtean sortutako gehiga-

6. Urte honetan bertan iritzi artikulurako ere txandakatze formula bera erabiltzen hasi zen, aste batean Haizea Barcenillak eta hurrengoan Ismael Manterolak idazten dituzte gaur egun arteari buruzko iritzi artikuluak.

rriak kulturako profesionalak biltzea zuen helburu, bai berriak, bai erreportajeak eta bai kritikak argitaratzeko asmoarekin. Pixkanaka erreferentzi handiko gehigarria bihurtu zen eta Euskal Herriko prentsan kulturaren inguruan ezagututako proiektu indartsuena eta kalitate maila handikoena izan zen. *Mugalari* 2011ko martxoan desagertu zen *Gara* egunkariaren estutasun ekonomikoak zirela medio, eta gehigarriari web orrialdean jarraikortasuna emateko asmoa aipatu bazen ere, asmoa ez zen inoiz gauzatu.

Iraun zuen urteetan aldaketa handiak izan bazituen ere, orokorrean arte orriek lau zati izaten zuten. Alde batetik, iritzi koloma laburra argitaratzen zen, bestetik kritikak osatzen zuten gehiengoa. Bestalde, zenbaitetan erreportajeei lekua egiten zitzaien, elkarrizketekin tartekatuz. Gainera, zenbaki batzuetan artista ezberdinei bertarako egindako kolaborazioa argitaratzeko gonbita jasotzen zuten. *Ad hoc* izeneko atal honek jarraipen handirik izan ez bazuen ere, emaitza ederrak izan zituen iraun zuen bitartean, artista askoren lanak argitaratu zirelako kritikari eta artisten aukeraketen bidez. Beraz, erakusketa esparru modura hartzen zen tarte hau Peio Agirre, Itxaso Mendiluze, Leire Vergara, Miren Jaio, Fito Rodriguez, Julio Hernandez Grima, Natxo Rodriguez, Iñaki Arzoz, Clement Bernard eta Itxaso Diazen ardura izan zuen komisario moduan lan egin zuten artisten kolaborazioa eskatzerako orduan.

*Mugalari*ko arte orriak koordinatzaile baten esku egoten ziren. Koordinatzailearen lana iritzi koloma jasotzea, kritikatzeko erakusketak iradokitzea eta erreportajeak zein elkarrizketak proposatzea zen. Lehenbiziko epealdian Gabriel Villota izan zen koordinatzailea. Ondoren, 2001. urtetik 2007ko bukaera arte Fito Rodriguezen esku geratu zen. Honek Itxaso Mendiluzeri utzi zion ardura, eta 2009ko irailetik 2011n desagertu zen arte Haizea Barcenillak koordinatu zuen. Azpimarratu behar da Mariasun Monzonek, *Mugalari* gehigarriko arduradunak, izandako garrantzia, bera izan baitzen proiektuaren oinarri eta koordinatzaile zein askotan idazleekin harremana ezarri zuena.

Iritzi koloma idatzi zutenen artean, Gabi Villota, Miren Jaio, Fito Rodriguez eta Ismael Manterola egon ziren. Erakusketetako kritikak eta erreportajeak idatzi zituzten, besteak beste, Peio Agirrek, Ismael Manterolak, Marta E. Martinek, Gorka Bilbao Palaciosek, Txus Melendezek, Pernan Goñik, Natxo Rodriguez Arkautek, Itxaso Mendiluzek, Gabi Villotak, Iñaki Arzozek, Clement Bernardek, Estibaliz Exkerrak, Ibon Salaberriak eta Alex Mitxelenak, Beatriz Herraezek, Julio Hernandez Grimak, Iñigo Garcia Odiagak, Maria Murek, Itxaso Diezek, Marta Muñozek, Aimar Arriolak, Haizea Barcenillak, Xabier Gantzarainek, Maite Goñik, Ricardo Antonek, Iñaki Imazek, Leire Vergarak, Iñaki Martinez de Albenizek, Antxon Lafontek edota Garikoitz Fragak. Asko izan ziren noizean behineko kolaborazioak egin zituztenak: Txaro Arrazolak, Ibon Saenz de Olazagoitiak, Maria Jose Belbellek, Javier Puldainek, Iñaki Larrinbek, Teresa Zarcok, Edu Hurtadok, Cebas Vivancok, Mikel Onandiak, Elena Solasek eta Javier San Martinek, beste askoren artean.

Zerrenda zabal horrek ondo adierazten du, *Mugalarik* garaian izan zuen arrakasta eta eragina euskal artearen munduan. Hala ere, Gabi Villota, Miren Jaio eta Peio Agirre izan ziren izen aktiboenak hasierako garai batean, gerora Fito Rodriguezek eta Itxaso Mendiluzek lekukoa hartu arte.

Mugalariren desagerpenarekin batera *Gara* egunkariak gehigarrian aritutako hainbat kolaboratzaileekin lanean jarraitu zuen kultura orritan arte kritikaren presentzia mantentzeko, batez ere zutabeen bidez. *Mugalari* desagertu eta hurrengo urtean Fito Rodriguezek eta Haizea Barcenillak tartekatu zuten halako zutabe bat. Hala ere, erregulartasunez hasi baziren ere, pixkanaka arte kritika egunkaritik desagertzen hasi zen, 7K izeneko aste buruko gehigarrira pasatzeko. Bertan *Panoramika* izeneko atala sortu zen. 2012tik 2015era Fito Rodriguezek idatzi izan du kritika baino gehiago erakusketa baten iruzkina izan daitekeena, nahiz eta hilabete batzuetan Leyre Goikoetxearen parte hartzea izan zuen. Gaur egun atal hori Iker Fidalgoren esku dago, arkitekturari buruzko artikuluak Iñigo Garcia Odiagak idazten dituen bitartean.

Gaztelaniaz argitaratutako egunkarien artean, *Deia* izan zen arte garaikideari atea zabaldu zion lehenetariko egunkaria. Artikulu hau Xabier Saenz de Gorbearen omenez idatzita dagoenez, zaila da Euskal Herriko arte kritika eta *Deia* egunkarian 30 urtetan idazten ibili zen Saenz de Gorbea bereiztea. Arte garaikideari buruzko berriak eta hausnarketa ohikoak ez ziren garaietan Saenz de Gorbeak arte kritika idazteari ekin zion egunkari honetan, 1981. urtean hain zuzen. Ordutik astero-astero arte kritikak argitaratu zituen etengabe 2015. urtera arte, hil baino hilabete batzuek lehenago. Formazioa eta informazioa elkartzen zuen kritika mota izaten zen Saenz de Gorbearena, zorrotza eta nazioarteko testuinguruarekin harremanetan. Bilbo eta inguruko herrietako esparru geografikora mugatzen bazen ere, ohikoa zen Gasteizko erakusketak ere iruzkintzea. Ondo oinarritutako iritziak emateaz gainera, bere artikuluak irakurterrazak egiten zituen, kontuan izanda komunikabide orokor eta ez espezializatu batean idazten ari zela.

Saenz de Gorbearekin batera, Edorta Kortadi idazten hasi zen *Deia* egunkarian Donostiako eta, orokorrean, Gipuzkoako arte erakusketen kritika egiteko. Urtetan bi arte historialarien kritikak erreferentziazko arte orri interesgarria osatu zuen *Deia*n. Azken urteotan, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren sorreraren ondoren, Edorta Kortadik *Deia*n argitaratzen dituen kritikak larunbatetan *Noticias de Gipuzkoa*n ere argitaratzen dira.

Azpimarratzeko modukoa da komunikabide talde handien egunkariek arte garaikidearen gainean duten kezka gutxia. Bai *El Correo Español*ek, bai *Diario Vasco*k ez zuten arte kritikarik argitaratu 90eko hamarkadaren erdialdera arte. Susma daiteke Bilboko Guggenheim Museoaren etorreraren iragarpenak arte garaikidearen gaineko interesa piztu zuen Vocento taldeko bi egunkaritan. Hala ere, kritikaren iraupena motza izan zuela bi egunkariotan. *El Correo*k 1996. urteko martxoaren aurrenean *Territorios* izeneko kultura gehigarria argitaratzen hasi zen ostegunetan (1997ko urritik aurrera asteazkenetan). Bertan arte plastikoen presentzia bi orrialdekoa izaten zen batez beste, eta Alicia Fernandezen arduran zeuden argitaratzen ziren arte kritikak. Arte orriak tarteka argitaratzen ziren erreportajeekin eta elkarrizketekin osatzen ziren, ia beti Gerardo Elorriagaren sinadurarekin. Hala ere, argazkigintzari buruzko erakusketen kritikak Ramon Esparzak idazten zituen eta Javier Gonzalez de Duranaren eta Javier San Martinen kolaborazio puntualak jaso zituen iraun zuen urteetan.

Alicia Fernandezen kolaborazioa *Territorios*en orrietan 2002. urtera arte luzatu zen; urte hartako uztailetik aurrera beste izen batzuek hartu zuten lekukoa: J.

A. Gonzalez Carrera edo Cristina Camargo. Hein berean, Gerardo Elorriagak ordezkatu zuen Alicia Fernandez kritika zereginetan 2003tik aurrera.

Bere aldetik, *Diario Vasco* egunkarian Iñaki Ruiz de Eginoren arte kritika argitaratzen zen aste buruetako orrietan 1994. urtea baino lehen. Urte hartan *Focus* izeneko aste buruko gehigarri orokorra argitaratzen hasi zirenean, Maya Agirianoren bi erakusketen kritikei tarte egin zioten. Helburu handiagoa zuen proiektua zenez, ez zuen bakarrik Donostiako erakusketen berri ematen, Maya Agirianok Euskal Herri osoko erakusketen kritikak argitaratu zituen orriak iraun zuen bitartean (1999. urtera arte). *Focus* gehigarria desagertu ondoren, arte kritika kulturaren orri orokorretara bueltatu zen, 2002ra arte. Urte hartan, *Diario Vasco*ko arduradunek kulturaren atal bakoitza sakontasun handiagorekin aztertzea erabaki zuten: ostegunetan artea, ostiraletan zinema, larunbatetan liburuak, e.a. Arte orriko kritikak Jose Javier Fernandez Altunak idatzi zituen 2004an desagertu arte. Kontuan izan behar dugu azken egunkari honek arte garaikideko galeria sostengatu zuela Donostian 1994tik 2005era.

2.1.2.Espainiako prentsa

Espainiako prentsa orokorrak ere izan du Euskal Herriko artearen gaineko interesa. Euskal Herrian zabaldutako erakusketen kritikak oihartzuna izan du Espainia mailako prentsan eta hark argitaratutako gehigarri kulturaletan. *El País* egunkariaren *Babelia* izeneko gehigarriak arteari tarte handia eskaini zion 80, 90 eta 2000ko hamarkadetan. Hasiera batean, bertan argitaratzen ziren Euskal Herriko erakusketen kritikak Madrilgo kritikoek idazten zituzten, baina laster hobetsi zen Euskal Herrian bertan bizi zen norbaiti kritika horiek eskatzea. Maya Agirianok eman zion hasiera ohitura horri 1979 eta 1981. urte bitartean. Adelina Moyak lan hori denbora tarte labur batean bete zuen 2007. urtean. Miren Jaiok bete zuen Adelina Moyak utzitako hutsunea, 2008. urtetik 2011 bitartean 20 kritika inguru argitaratuz.

Gaur egun *El País* hasierako bidera bueltatu da, hau da, Madrilgo kritikoak Euskal Herrira bisitaldia egiten dute interes berezia duen erakusketa gutxi batzuk ikustera, gero orri orokorretan argitaratzeko, eta ondorioz, ez dago une honetan egunkari horretan idazten duen euskal kritikaririk.

Gauza bera esan daiteke *ABC*k argitaratzen duen *ABC Cultural* gehigarriarekin ere. 2001. urtetik 2009. urtera arte Alicia Fernandez izan zen Bilboko eta, orokorrean, Euskal Herriko, erakusketen kritika idatzi zuena (bai egunkarian hasierako urtean, bai *Cultural* gehigarrian ere aldi berean). Hala ere, azken urtetan *ABC Culturaleko* Madrilgo arte kritikoek Euskal Herrirako bidea egiten dute interes berezia duen erakusketen kritikak idatzi nahi dutenean. Honekin batera, eta prentsaren krisiarekin lotuta, azken garaitan arte kritikari *freelance* delakoak erabiltzen ari da zonalde zehatz batean zabaltzen diren erakusketen berri emateko. Honek malgutasuna ematen duela pentsa badaiteke ere, aldi berean kritikarien egoera prekarizatzen du, berez zaila zen lanbide honetatik bizirautea ia ezinezko bihurtuz.

El Mundo egunkariak *El Cultural* kultura gehigarria argitaratzen du 1999tik. Gehigarri horretan tartea egin izan zaio Euskal Herriko artearen egoerari eta 2001. urtetik gaur egunera arte Ramon Esparzak idazten du arte erakusketen kritika. Tarteka Euskal Herritik kanpoko erakusketen kritikak egiten baditu ere (batez ere ar-

gazkigintzarekin lotutakoak), Bilboko artearen ekimenetan zentratzen ditu bere idatziak. Gaur egun gehigarri hau da, Espainiako egunkarien artean, Euskal Herrian bizi den arte kritikaria mantentzen duen bakarra.

Bartzelonako *La Vanguardia* egunkariak *El Pais*en ereduari jarraitu zion 2002. urtetik 2005. urtera arte. Peio Agirrek erakusketa eta beste ekimen handien kritikak idatzi zituen urte horien artean egunkariko kultur gehigarrian argitaratzeko.

2.2. Aldizkariak

Arte aldizkarien panorama Euskal Herrian ez da oso aberatsa izan. Gipuzkoako Aldundiaren esku zegoen Artelekuk argitaratutako *Zehar* aldizkariaren salbuespenarekin, ez da argitaratu arte garaikideko aldizkari espezifikorik Euskal Herrian. Horregatik Euskal Herriko arte kritikoek beste tokitan argitaratutako aldizkaritan lan egin dute edo zabaldu dituzte beraien lanak.

Aldizkarien multzoan artikulu mota ezberdinak topa ohi ditzakegu. Alde batetik, prentsa kritikaren antza handiagoa duten artikulu mota aipatu behar da. Labur xamarrak (prentsakoak baino luzeagoak badira ere) eta erakusketa zehatz baten berri ematen dutenak izaten dira. Hala ere, ezberdintasun handiena sakontasun mailan egongo litzateke. Arte aldizkari espezifikoen irakurleak zaleak eta profesionalak izaten direnez, eta ez publiko orokorra, oinarrizko maila batetik gorako hizkuntza teknikoa eta erreferentziak erabiltzeko aukera dago. Dibulgaziorako baino gehiago hausnarketa kritikoagoan sakontzea izango litzateke artikulu hauen helburua.

Hauekin batera, artista zehatzei dedikatutako erreportajeak, hala nola kontzeptu, joera, garai edo ideia zehatz baten inguruko testu sakon eta teorikoagoak topatu ditzakegu halako aldizkarietan. Ikerketa eta gogoeta sakonago baten ondorio, luzeagoak eta espezializatuagoak izaten dira halako testuak. Ohikoa da ere aldizkarietan artista, komisario eta museo-zuzendariei elkarrizketak topatzea, egunkari eta gehigarrietakoak baino sakonago eta iaioagoak izan ohi direnak.

Espainiako eta Frantziako aldizkarietan argitaratzea izan da Euskal Herriko arte kritikoen joera. Ingelesezko aldizkari globalizatuetan idazteko aukera ia ezinezkoa izaten denez (salbuespenak salbuespen), bai hizkuntzaren mugaketarengatik, bai argitalpen hauen sareak Euskal Herritik urrun xamar geratzeagatik, inguruko aldizkarietan aurkitu dituzte bertako idazleek aukera gehienak.

Espainiako argitalpenetara mugatuta, azken 30 urtetan proiektu editorial asko tartekatu dira maiztasunez arte garaikideko aldizkariak argitaratzeko. *Lapiz,* 1982an sortua (lau hilabetekaria gaur egun), *Arte y Parte*, 1996an sortua (bi hilabetekaria) eta *Exit*, 2000. urtean sortua (hiru hilabetekaria gaur egun) aldizkariak izan dira gehien iraun duten produktuak, nahiz eta *Exit* faktoriako proiektu guztiak ez duten arrakasta bera izan, adibidez *ExitExpress* 2004tik 2011ra iraun zuen hilabetekaria (orain aldizkari digitala da) edo *ExitBook*.

Ia aldizkari guzti hauetan Euskal Herriko kritikarien parte hartzea egon da. Neurri eta maiztasun ezberdinez, baina Espainiako arte panoramari buruzko iritzia eman dute Euskal Herriko arte kritikariek, bai Euskal Herrian bertan egiten zen arte garaikidearen berri ematen (erakusketei eta bertako artistei buruzko artikuluen bidez), bai Espainiako edo nazioarteko arte panoramaren analisiak edo iritzi kritikoak zabalduta.

Euskal Herriko kritikarien lehenbiziko kolaborazioak *Lapiz* aldizkarian idazten hasi ziren. Javier San Martin (Donostia, 1954) goiz hasi zen aldizkari berrian idazten, 1991ko 77. zenbakian argitaratu baitzuen lehenbiziko artikulua. Ordutik ia urteroko kolaborazioak argitaratu zituen, nahiz eta garairik oparoena 1997tik 2000. urtera izan (1999. eta 2000. urtetan hiruna artikulu argitaratu zituen). Garai horretatik aurrera, puntuala izan da *Lapiz* aldizkariarekin izan duen harremana, 2011-2012. urtean argitaratu baitzuen azken artikulua.

2000ko hamarkadan Javier San Martinek Espainian argitaratzen diren bi argitalpen proiektu nagusiekin harremana hasi zuen. Alde batetik, *Exit* proiektuko hiru aldizkaritan parte hartu zuen 2001 eta 2007. urte bitartean. Rosa Olivaresek martxan jarri zuen proiektuan artikulu gutxi batzuek idatzi zituen 2001-2002 eta 2007-2008 urteetan. *ExitExpress* arinagoan pare bat eta *ExitBook* delakoan gehiago, bost 2002 eta 2008 artean.

Arte y Parte aldizkariarekin harreman handiago izan du eta maiztasun handiagorekin argitaratu ditu bere artikuluak, 2001. urtetik gaur egunera arte ia urteroko maiztasuna mantendu baitu.

Hala ere, *Lapiz* aldizkarian artikulu gehien idatzi duena Esther Ferrer artista izan da (Donostia, 1937). Aldizkaria sortu eta berehala idazten hasi zen 2. zenbakian, 1983. urtean, eta lotura mantendu zuen 1990. urtera arte. Elkarrizketak eta Parisko erakusketen berriak *Lapiz*eko ia zenbaki guztietan argitaratu zituen 80ko hamarkadan zehar.

Hasierako garaietan *Lapiz*ekin harremana izan zuen beste kolaboratzailea Txema Esparta izan zen. Euskal Herriko artearen berri eman zuen lau zenbakitan 1983 eta 1984. urte artean.

*Lapiz*ek beste kolaborazio puntualak ere izan zituen hasierako etapa hartan, adibidez Xabier Saenz de Gorbeak Euskal Herriko artearen ikuspegi orokorrari buruzko artikulua eta Antxon Urrusolok Euskal Herriko argazkigintzari buruz idatzi zuten 5. zenbakian.

90eko hamarkadan Kosme Barañanok ere artikulu bat idatzi zuen aldizkarian eta, zerbait beranduago, Miren Jaiok zazpi artikulu idatzi zituen 1994. eta 1996. urteen artean. Garai hartan kolaborazio luzeago baten hasiera izango zela ematen bazuen ere, aldizkariaren gora-beherek ez zuten jarraipena ziurtatu. Azkenik, 2001ean, Peio Agirrek Euskal Herriko artearen egoerari buruzko artikulua idatzi zuen, kritikoak aldizkariarekin izan duen lotura bakarra.

Esan bezala, Xabier Saenz de Gorbeak (Bilbo, 1951) *Lapiz* aldizkariaren hasierako etapan argitaratu zuen euskal artearen egoeraren artikulua (5. zenbakia, 1983an). Jarraipenik gabe, Saenz de Gorbeak oso tarteka argitaratu zituen bere lanak Espainia mailako aldizkaritan. *Guadalimar* aldizkariko 1992ko 117. zenbakian argitaratutako artikuluarekin batera, *Arte y Parte* aldizkarian beste bi artikulu argitaratu zituen 2000ko hamarkadan, bat 87. zenbakian 2010ean eta bestea, Paco Durriori buruzko lan luzea, 105. zenbakian 2013an.

Argazkia: Sonia Rueda

*Lapiz*ek Madrilgo arte aldizkariaren azken epealditan Euskal Herriko beste kolaboratzaileen inplikazioa bilatu du. 2004tik aurrera Galder Reguerak artikuluak idatzi ditu era intermitentean aldizkarirako. Batzuk Euskal Herriko egoeraren berri eman izan dute, beste batzuk artearen gai orokorragoei buruzko iritziak emateko erabili ditu, hala nola nazioarteko artisten erakusketen inguruan mintzatzeko. Aldizkariaren maiztasunaren aldaketarekin, 2004tik 2010era Reguerak urtean artikulu bat idatzi duela esan daiteke, nahiz eta 2010etik gaur egunera arte bi besterik ez izan, azkena 2015ean (aurreko artikulu baten berrargitalpena).

Honi lotuta *Arte joven vasco (un panorama del arte reciente en Euskadi)* izeneko artikulua aipatu behar da, idazten hasi berria zen garaian idatzitakoa, 2005ean. Reguerak 212. zenbakian argitaratu zuen artikuluak Euskal Herriko arte munduaren hautsak harrotu zituen eta eztabaida handia eragin zuen, artikuluan bertan esandakoengatik, autorea ia inork ezagutzen ez zuen garaian. Istilu horrek

Lapiz aldizkariaren sinesgarritasuna hondatu zuen Euskal Herriko artisten eta arte munduaren artean. Gutxitan lortu izan du arte kritikak halako polemika eta zabaltzeko gaitasuna izatea euskal komunitate artistikoaren artean.

Bestalde, Fernando Golvano izan daiteke *ExitExpress* eta *ExitBook* aldizkariekin harremana izan duen Euskal Herriko kritikorik ezagunena. 2005. urtean argitaratu zuen *ExitBook* delakoan lehendabiziko artikulua eta 2015ean azkena. Tartean ia urtero kolaboratu du aldizkariarekin. Horrekin batera, *ExitExpress* aldizkarirako artikulu gehiago idatzi ditu, 2006. urtean hasita 2011. urtera arte. 2008 eta 2009. urtetan era oso aktiboan hartu zuen parte Rosa Olivaresen proiektuan.

90eko hamarkadaren bukaeran arte kritiko gazteagoak azaltzen hasi ziren Euskal Herriko artearen esparruan. Horien artean aipatutako Miren Jaio (Bermeo, 1968) izan daiteke lehenetarikoa prentsan eta aldizkaritan idazten. *Lapiz*ekin izandako kolaborazio goiztiarra alde batera lagata, azken urteetan beste aldizkarientzako artikuluak idatzi ditu, tartean 2012. urtean sortutako *Concreta* izeneko aldizkarirako. Sei hilabetetik behin argitaratzen den aldizkariak Euskal Herriko kritiko eta artisten kolaborazioa barneratu du orain arte argitaratutako zazpi zenbakitan. Peio Agirrek lehenbiziko alean idatzi zuen, Miren Jaiok 4.ean, Asier Mendizabalek 5.ean, Jaime Cuencak 6.ean eta Oier Etxeberriak 7.ean. Artikulu horiekin batera Oier Etxeberriaren eta Juan Perez Agirregoikoaren lan praktikoen kolaborazioak bildu zituen 2. eta 3. aleetan.

Kritikariekin jarraituta, 2000. urtetik aurrera Euskal Herriko kritikorik aktiboenetako bat Peio Agirre izan da (Elorrio, 1972). Kritikan eta komisariotzan modu profesionalean aritzen den ia bakarrenetakoa izan zen garai horretan eta ia gaur egun ere, belaunaldi gazteago bat sortu arte.

Peio Agirrek komunikabide askotan kolaboratu zuen 2002. urtetik aurrera, lehen aipatutako *Mugalari* edo *La Vanguardia* prentsan, hala nola aldizkari askotan: *Lapiz*, *ExitExpress* eta *ExitBook*, esan dugun modura. Agirre da nazioarteko arte aldizkaritan argitaratu duen euskal kritikari bakarrenetakoa, *Flash Art* (2003an), *Afterall* aldizkarian (2011an), Bruselan argitaratzen den *A prior Magazine* (2008an, 16. zenbakian), New Yorkeko *e-flux* (2011an) edo Kolonbian argitaratzen den *Errata* (2013an) delako aldizkaritan argitaratu baitu. Miren Jaiok bezala, azken urteotan argitaratu diren aldizkarietan ere parte hartu du modu puntualean, *Concreta* izeneko lehendabiziko zenbakian aipatu legez, eta *El Estado Mental* 2010. urtean Madrilen sortutako aldizkarian pare bat artikulu idatzi ditu 4. eta 6. zenbakitan. Aipatu behar da aldizkariaren azken zenbaki horretan Miren Jaiok June Crespori buruzko artikulua argitaratu zuela eta Juan Perez Agirregoikoak proiektuen atalean bere lan bat erakutsi zuela.

Hala ere, Peio Agirrek testuak *Critica eta Metacomentario* izeneko blogean argitaratzen ditu 2006. urteaz geroztik. Kontuan izanda zaila dela komunikabideetako kritika askea egitea eta ez dela erraza gaur egun aldizkari independenteak mantentzea, Agirrek blog bat sortzea erabaki zuen bere idatziak plazaratzeko. Horrekin batera kritikaren teoria ere landu du Consonnik 2014an argitaratutako *La linea de producción de la crítica* izeneko liburuan.

Peio Agirre baino zerbait gazteagoa da Galder Reguera (Bilbo, 1975). Esan dugun bezala, bere aktibitate kritikoa *Lapiz* aldizkariari lotuta hasi zuen 2004an. Hala ere, 2005eko *Arte joven vasco* artikulu polemikoak ezagun egin zuen Euskal

Herriko arte panoraman. *Lapiz* aldizkariarekin kolaboratzen jarraitu du Euskal Herriko arte erakusketei buruz idazten hasiera batean eta artikulu orokorragoak beranduago.

Nahiz eta arte kritikaren mundura beranduago iritsi, belaunaldi honetan kokatu daiteke Aimar Arriola (Markina, 1976) ere. *A*Desk* aldizkarian argitaratu ditu bere kritikak 2008. urtetik 2010. urte bitartean. Kritikariaren perfila baino gehiago arte komisariotzan kokatu dezakegu bere lana.

Bestalde, 80ko hamarkadan jaiotako arte kritikarien artean, Haizea Barcenilla aipatuko dugu lehendabizi, (Lezo, 1981). EHUko Arte Historiako ikasketak egin ondoren, irakaskuntza, kritika eta komisariotza bateratu ditu. Prentsako atalean esan bezala, Berria egunkarian kritika idatzi du euskaraz. Aldizkarietan ere jardun du, batez ere *A*Desk* izenekoan. 2002an Bartzelonan sortutako aldizkari digitaleko Haizea Barcenillaren kolaborazioa 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014. urte bitartean izan da.

2009an ere *Artecontexto* aldizkariko 21. zenbakirako artikulu bat idatzi zuen halaber. Hainbat dira, hain zuzen, era puntual batean *Artecontexto* aldizkariarekin kolaboratu duten Euskal Herriko arte kritikariak: Beatriz Herraez (2009ko 21. zenbakian ere), Itxaso Mendiluze (2010eko 28. zenbakian eta 2011ko 29.an), Leire Vergara (2011ko 29. zenbakian) eta Xabier Arakistain (2012ko 36. zenbakian) izan dira.

Haizea Barcenillaren belaunaldi berekoa eta *A*Desk* aldizkarian urte batzuetan parte aktiboa izan zuen beste arte kritikaria Maite Garbayo da (Iruñea, 1980). *ExitExpress* aldizkarian eman zituen lehen urratsak 2009an, eta bertan jarraitu zuen 2011. urtean azken artikulua argitaratu arte. Urte horretatik aurrera 2013ra arte 10 artikulu argitaratu zituen *A*Desk* aldizkarian.

Aipatu beharra dago aldizkari honetan beste Euskal Herriko hainbat kritikarik eta artistak hartu dute puntualki parte. Hain zuzen, Beatriz Herraezek 2007an, Saioa Olmok hiru artikuluekin 2013an, 2014an eta 2015ean eta Maider Zilbetik 2010eko maiatzeko alean.

Beste medioekin kolaboratzeaz gainera, Maite Garbayo aldizkari bat argitaratzeko lanetan sartu zen Francesc Ruizekin batera. *Pipa* izeneko aldizkariaren lehendabiziko zenbakia 2012an argitaratu zuten eta gaur egun arte beste bi besterik ez dituzte kaleratu. 2013an eta 2014an.

Bai Maite Garbayoren bai Haizea Barcenillaren ezaugarria feminismoarekin duten lotura da. Horren ondorioz, artea eta feminismoa elkar lotzeko proiektu batzuetan parte hartu dute beraien kritikekin, adibidez *Pikara* izeneko aldizkari feministan. Berez arteari buruzko aldizkaria ez bada, bai Maite Garbayok, bai Haizea Barcenillak artearen eta feminismoaren arteko harremana gai hartu dute aldizkariarekin izan dituzten kolaboraziotarako.

Espainiako aldizkaritan tarteka kolaboratu duten Euskal Herriko arte kritikariak asko izan dira. Hain zuzen, aipatzeko modukoak dira *Guadalimar* aldizkariak 90eko hamarkadan argitaratu zituenak. 1975. urtean sortutako arte aldizkaria zen hau, 2002an desagertu zena. Historikoa izan zela esan daiteke Manuel Llano Gorostizak 1977an argitaratutako *Regionalismo y socialismo en el arte vasco* izenburua zeraman artikulua, 25. zenbakian. Artikulu honek euskal artearen inguruko ikerketak bultzatu zituen eta erreferentziazko artikulua izan zen hurrengo urtetako

XX. mende hasierako artearen ikerketarako. Baina beharbada aldizkariaren garairik interesgarriena 90eko hamarkada izan zen, euskal kritikarien parte hartzea sustatuz honela. Aldizkari horretan argitaratu zutenen artean aktiboena Kosme Barañano izan zen hiru artikulu argitaratu baitzituen, bat 1996an, bestea 1997an eta azkena 1999an. Bestalde, artikulu bana argitaratu zuten aipatutako Xabier Saenz de Gorbeak (1992ko 117. zenbakian), Satur Abonek zenbaki berean, Txomin Badiolak (1988ko 95. zenbakian, *Proposito Experimental* Oteizari buruzko erakusketaren berri ematen), Montserrak Fornellsek (1991ko 113. zenbakian), Maya Agirianok (1993ko 119. zenbakian) eta Miguel Zugazak (1998ko 140. zenbakian).

Aldizkaritan argitaratutako arte kritikaren atalaren hasieran esan bezala, Euskal Herrian inoiz egin den saiakerarik indartsuena eta interesgarriena *Zehar* aldizkaria izan zen. Gipuzkoako Aldundiaren kultura sailaren esku zegoen Arteleku arte zentroak argitaratu zuen lehen zenbakia 1989ko azaro-abenduan. Epealdi asko ezagutu zituen 2011. urtean desagertu arte. Maiztasuna ere ezberdina izan zen iraun zuen urteetan, batzuetan urtean ale bakarra argitaratzen zuen bitartean, bestetan bi edo hiru. Bere irregulartasunean arte garaikideko gaiak aztertzen zuen Euskal Herriko aldizkari bakarra izan da, 2014an *Eremuak* argitaratu zen arte. Dena dela, azken honek ez du *Zehar*ek izan zuen ikerketa sakontasuna, eta ez da bere helburua *Zehar*ek utzitako hutsunea betetzea.

1992ra arte luzatu zen lehen fase batean, egunkari itxura zuen eta Maya Agirianoren eta Joxemari Iturralderen ardurapean zegoen. 1992aren uztaila-abuztuako 17. zenbakitik aurrera itxura aldatu zuen aldizkari antza handiagoa izateko eta zuzendaritzarekin batera Santi Erasok, Adelina Moyak eta Javier San Martinek osatutako argitalpen batzordea gehitu zitzaion.

1995. urtean 29. zenbaki berritua argitaratu zen. Ordutik aurrera zuzendaritza Miren Erasoren esku geratu zen, Goretti Arillagaren laguntzarekin. Kolaboratzaile talde handia gehitu zitzaion eta zuzendari berriak arte aldizkari normalizatua izateko izugarrizko bultzada eman zion, Espainia eta nazioarteko arte argitalpen sarean sartzeko asmoarekin. Horrekin batera diseinuaren aldaketa aipatu behar da hurrengo zenbakitik aurrera.

Miren Erasok 2007an Artelekuko zuzendaritza hartu zuenean aldizkaria Maider Zilbetiren esku geratu zen[7]. Azken fase honetan itxura eta maiztasuna aldatu zitzaizkion, sei hilabetekaria izateko. Aldizkariaren desagerpen zenbakira arte 2011. urtean, Maider Zilbetik jarraitu zuen proiektuaren arduradun.

Hasieran bokazio orotarikoa bazuen ere, pixkanaka gai monografikotan sakontzeko aukera eskaini zuen Artelekuko aktibitateari eta interes guneei lotuta. Sarritan Artelekutik pasatako irakasleen eta artisten artikuluak edo beraiei buruzko artikuluak argitaratzen ziren. Bestalde, ez zen mugatu Euskal Herriko arte kritikari eta artisten artikulu eta kolaborazioetara: nazioarteko idazlei, arte kritikari, artista eta pentsalariei zabalik egon zen hiru hamarkadetan.

Egitura asko aldatu zen hasieratik bukaera arte, hizkuntzaren erabilpenarekin batera. Artikulu labur eta orokorrak bilatzen zituzten lehenbiziko epealdian. Beranduago berriz, elkarrizketa, artikulu labur eta artisten kolaborazioetara zabaldu

7. Miren Erasoren zuzendaritzapean argitaratutako *Zehar*ren azken zenbakia 60-61.a izan zen.

zen. Azken aleak, aldiz, monografikoak izan ziren: bioarteari buruzkoa 66. zenbakia, paisaiari buruzkoa 67. alea eta bideojokoei buruz 69. eta azken alea.

Lehenbiziko aletan euskararen presentzia urria bazen ere, beti zegoen tartetxo bat egiteko gogoa. Hurrengo urteetan artikuluen hizkuntza originala errespetatu zen eta ingelesez edo Gipuzkoan ofizialak ez ziren hizkuntzetan egonez gero, euskarara eta gaztelaniara itzultzen ziren. 2003tik aurrera aldizkaria bi hizkuntzetan argitaratu zen, itzulpen politika zorrotzari jarraituta.

Zehar aldizkariak Euskal Herrian idazten ari ziren arte kritikari ia guztien parte hartzea bildu zuen iraun zuen bitartean. Bertan argitaratu zituen testuak Miren Jaiok (1996. urtean lehenbizikoa eta 2010. urtean azkena), Peio Agirrek (artikulu bakar bat 2002an), Xabier Saenz de Gorbeak (artikulu bakarra 1996an), Leire Vergarak (bi artikulu, 2005ean), Maider Zilbetik (hiru artikulu, 2007, 2008 eta 2009an), Miren Erasok (2003an eta 2005ean), Gabriel Villotak (lau artikulu 1997a eta 2008a artean), Imanol Agirre Arriagak (artikulu bakarra 1998an), Xabier Erkiziak (lau artikulu 2003tik 2008ra), Xabier Gantzarainek (artikulu bat 2008an), Fernando Golvanok (artikulu bakarra 1996an), Iñaki Imazek (lau artikulu 1998tik 2006ra), Peio Mitxelenak (hiru artikulu, 1998an, 1999an eta 2000an), Arturo/Fito Rodriguezek (bi artikulu 2005an eta 2006an), Natxo Rodriguezek (artikulu bakarra 2005an), Pedro Manterolak (artikulu bakarra 1998an), Ismael Manterolak (bi artikulu 2004an), Lourdes Mendezek (artikulu bakarra 2000. urtean), eta abar.

Ikusten denez, *Zehar* aldizkariak tokia eskaintzen zien garai hartan arte garaikidearen inguruan ikertzen eta idazten zuen jende ia guztiari.

Azkenik, oraingoz bi ale dituen Eremuak aldizkaria aipatuko dugu. Izen bereko Eusko Jaurlaritzako programari lotuta, honek bultzatzen dituen zein Euskal Herriko testuinguruan gertatzen diren arte ekintzen berri emateko asmoa du. Edizioa Eremuak programako batzordeak egiten du, lehenengoan Peio Agirre, Beatriz Herráez eta Itziar Okarizek egin zutelarik, eta Peio Agirrek, Pello Irazuk eta Itziar Okarizek bigarrenean. Aurretik aipatutako hainbat kritikarien testuez gainera (Haizea Barcenilla eta Saioa Olmo, Maite Garbayo eta Peio Agirre 1. zenbakian eta Jaime Cuenca, Beatriz Herraez, Miren Jaio eta Jon Mantzisidor 2.ean), hainbat artisten interbentzioak ere agertzen ziren, esaterako, Txuspo Poyo, eta Marion Cruza/Grace Livingston 1. zenbakian, eta Manu Uranga eta Pablo Marte, Maria Luisa Fernández, Lorea Alfaro eta Irkus M. Zeberiorenak 2.ean. Hala ere, argitalpen honek ez du oraingoz ez Zeharek izan zuen oihartzuna, ez idazleen belaunaldi berria sustatzea lortu.

2.3. Katalogoak

Arte kritikaren beste zereginetako bat komunikabideetan idaztearekin batera (prentsa eta aldizkariak), erakusketetako katalogoen testuak idaztea izan da. XX. mendean kritikarien zeregin klasikoa izan da, artisten eta joeren analisiak egiteko aukera eskaintzen duelako luzeagoak izan daitezkeen testuen bidez. Ohikoa izaten da artista bati buruzko erakusketa monografikoak aurkezpen testua izatea argitaratutako katalogoan edo askotariko erakusketen justifikazioa katalogoetarako testuetan aurkitzea. Katalogoetan argitaratzen diren testuek ez ohi dute luzera muga zehatzik, eta orokorrean prentsako bat-batekotasuna eta mugatutako espazioaren

baldintzetatik ihes egiteko aukera ematen dute. Aldizkaritan argitaratzen diren testuen aldean, hausnarketarako aukera handiagoa ematen dute.

Euskal Herrian antolatzen diren arte garaikideko erakusketa oso anitzak daude. Garai batean erakunde askok argitaratzen zituzten katalogoak eta horietako gehienetan testu labur edo luzeagoak tartekatzen ziren. Hala ere, gora behera handiak daude katalogoen artean. Museo handiek argitaratzen dituztenak baliabide handiagoekin egiten dute lan eta arte kritikarien lana eskatu dezakete ondo ordainduta. Beste mailetan, hau da, arte zentrotik kultur etxeetara, desberdintasun handiak daude. Instituzio handietan izan ezik, ordaindu gabeko edota gutxi ordaindutako testuak izaten dira, sarritan artista eta idazlearen arteko laguntasunak eragindakoak.

Ezinezkoa litzateke honen gisako artikulu batean Euskal Herrian idatzi diren erakusketen katalogoen azterketa egitea; hala ere, hurbilketa bat egiten saiatuko gara, museo eta erakusketa aretoek argitaratu dituzten katalogotan zer motatako testuak eta zeinek idatzi dituzten jakiteko.

Museo handiekin hasiz gero, Bilboko Guggenheim Museoa eta Arte Ederren Museoa Artiumekin batera jarriko genituzke lehenbiziko mailan. Horien artean bik arte garaikidea dute lan ardatz, hots, Artiumek eta Guggenheimek (nahiz eta sarritan Guggenheim museoak beste garaitako arteari tartea eskaini dion). Hala ere, Bilboko Arte Ederren Museoan arte garaikideko erakusketen egitarauak garrantzia handia du.

Azken sei urtetan Artiumek argitaratutako katalogoek tarte gutxi eskaini diete inguru hurbileko arte kritikarien edo artisten testuei. 2010etik argitaratutako 33 katalogotan bertakoek gutxi idatzi dute, Museoko bertakoen testuak alde batera lagata (Daniel Castillejo, Enrique Martinez eta Blanca de la Torreren esku). Aurkitzen ditugun testuak ondoko hauek dira: Santi Erasok Iñigo Royoren erakusketaren katalogoan, Juan Luis Morazak Artiumeko bildumari buruz egindako erakusketa batean, Jaime Cuencak eta Santiago Arcedianok Juan Miegen erakusketaren katalogoan, Arturo/Fito Rodriguezek Iñaki Larrinbe eta Jaime Davidovichen erakusketetan, Maite Garbayok Regina Jose Galindoren katalogoan eta Javier San Martinek Santiago Sierrari eskainitakoan. Kontuan izan behar dugu gutxi gora behera 75 egileen testuak argitaratu direla 33 katalogo horietan.

Guggenheim museoari buruz azpimarratzekoa da bertako testuinguruarekin duen harreman ia deusa. Erakusketak kanpotik etortzen dira, New Yorkeko egoitzatik edo harremandutako bestelako museoren batetik. Erakusketen ekoizpen propioa izan duen gutxietan tarte txikia egin die bertako kritikarien testuei, adibide gutxi batzuk egonik ere. 2004an Oteizari eskainitako erakusketa handia kenduta, non Txomin Badiolaren komisariotza eta testuen katalogoak zeuden, adibide bakar bat aurkitu daiteke bertako arte kritikarien testuekin osatutako katalogoena. 2013 eta 2014. urtetan Iñaki Garmendia, Erlea Maneros eta Xabier Salaberriaren lanekin erakusketa antolatu zen Bilboko museoan. Katalogorako testuak Peio Agirrek eta Miren Jaiok idatzi zituzten, erakusketaren komisarioekin batera.

Guggenheim alde batera utzita, Bilboko Arte Ederren museoak arte garaikideko erakusketak tartekatzen ditu bere egitarauan. Erakusketa orokorrak eta kanpoko artistei eskainitako erakusketak kenduta, bertako artisten erakusketak antolatzen ditu urtean behin espazio zehatz batean. 2010. urtetik gaur egunera

arte Bilboko Museoak urtero Euskal Herriko artista bati eskaini dio bakarkako erakusketa: Jesus Mari Lazkano, Daniel Tamayo, Jose Ramon Anda, Ramon Zuriarrain, Mikel Diez Alaba eta Susana Talayero. Lazkanorena izan ezik, katalogotan orokorrean bertako kritiko edo idazleei egin zaie tokia: Alicia Fernandezek idatzi zuen Tamayori buruzkoa, Javier Baldak eta Edorta Kortadik Andari buruzkoa, hiru idazlek idatzi zuten Zuriarraien erakusketaren inguruan eta Aimar Arriolak idatzi du Susana Talayeroren katalogoan[8].

Erakusketa handiagotan zailagoa da bertako arte kritikoen edo ikerlarien lanak argitaratzea. 2013. urtean Nestor Basterretxeari eskainitako atzera begirakoan Peio Agirrek idatzi zuen katalogoan, berak izan baitzuen erakusketaren ardura. Bestalde, Kosme Barañanok komisariotza lana sarri izaten duenez, katalogoko testuak idaztea ere egokitu zaio, tartean 2014an Markus Lupertzi eskainitako erakusketan eta 2015ean William Tuckeri eskainitakoan. Horiekin batera 2015eko bukaeran eta 2016ko hasieran museoko kartelen bildumari buruzko erakusketan Mikel Bilbaok idatzi zuen katalogoko testua.

Ikusten dugunez, Bilboko Arte Ederren Museoak tarte handiago ematen diote bertan lanean dauden arte kritiko eta profesionalei, nahiz eta sarritan bertako artisten erakusketetan besterik ez izan.

Esan behar da Guggenheim Museoak eta Arte Ederretako Museoak katalogoak gaztelaniaz besterik ez dituztela argitaratzen, eta noizean behin ingelesezko bertsioak Guggenheimen kasuan. Euskal Herriko beste museo eta arte zentroekin alderatuta, bi museo hauek ez dute jarraitzen Euskadiko Elkarte Autonomoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratzeko irizpidea. Azken urtean Bilboko Arte Ederren Museoak euskarazko itzulpena on line jartzeko erabakia hartu du. Ez da katalogo guztietara zabaltzen den irizpidea, baina hizkuntza normalkuntzaren hasiera izan daiteke. Guggenheimen kasuan ez dago horrelakorik, ezta euskara normaltasunez erabiltzeko beste neurririk ere. Hortaz, bertan ekoiztutako zenbait erakusketa interesgarriren testuak, euskarazko bibliografia baterako osagarriak izan zitezkeenak, galdu ditugula esan genezake.

Euskal Herriko museo handiekin batera, beste arte garaikideko zentro interesgarriak daude aztertzeko. Donostiako Koldo Mitxelena erakusketa aretoa eta Bilboko Rekalde Aretoa izan dira indartsuenak arte garaikidea sustatzerako orduan. Bai batek eta bai besteak bertako arte kritikara begira egon dira erakusketetako katalogoak idazterako orduan, batez ere bertan ekoiztutako erakusketak direnean.

Koldo Mitxelena kulturuneko erakusketa aretoak ibilbide oparoa izan du arte garaikideko erakusketak ekoizterako orduan. Horregatik katalogotan argitaratu dituen testuetan nazioarteko arte egoerari tokia egin dio. Horrekin batera, Euskal Herrian lan egiten duten arte kritikarien kolaborazioa eskatu du ahal izan duen bakoitzean. Gainera erakusketak antolatzeko edo komisario lanak egiteko aukera eman die bertan bizi diren arte kritikariei. Berriz ere 2010. urtetik gaur egunera antolatutako erakusketen katalogoak begiratuta, bertako idazleen testuak topatuko

8. 2016. urtean Susana Talayerori eskainitako erakusketa Bilboko Arte Ederren Museoak emakume bati eskainitako lehenbiziko bakarkako erakusketa izan da.

ditugu, adibidez 2015ean *Paisaiaren murmurioa* izeneko erakusketan Maria Jose Aranzastiren eta Ixiar Rozasen testuak eta Nestor Basterretxeari eskainitako erakusketan Xabier Saenz de Gorbearenak. Gauza bera denboran atzera egiten badugu, 2013an *(H)istorio Konparaezinak* izeneko erakusketa antolatu zen Donostiako 1813. urteko suntsipena gogorarazteko ekimenen barruan, Haizea Barcenilla erakusketaren komisarioa izan zen eta katalogoko testuak idatzi zituen Garazi Ansarekin batera. Urte berean Amable Arias artistaren alderdi zehatz batzuen inguruko erakusketa antolatu zen eta Fernando Golvanok, komisario lanaz arduratzeaz gainera, katalogorako testua idatzi zuen.

Aurreko urtean, 2012an, Fiona Tan artistari eskaini zitzaion erakusketako katalogoak testu ezberdinak izan zituen, tartean Peio Agirreren bat. Zerbait beranduago *Irudiaren labirintoak* izeneko erakusketan Ramon Esparzaren testuak argitaratu ziren katalogoan. Bestalde, 2011an Jose Antonio Sistiagari eskainitako erakusketako katalogoan hiru testu argitaratu ziren, tartean Javier San Martinen bat.

Ganbarako erakusketa aretoak helburu ezberdinak baditu ere, euskal artista garaikideen eta hildako artisten erakusketa monografikoak antolatzea ildoetako bat da. Bertan argitaratzen diren katalogoetan ugariak dira Euskal Herriko arte kritikariek idatzitakoak. 2015. urtetik oraingo artistekin osatutako zerrendan Arturo/Fito Rodriguezen testua topa dezakegu Detritus artistari eskainitako erakusketan. 2014an Mikel Lertxundik Jose Ignacio Olaberen grabatu argitalpenei buruz antolatutako erakusketarako testua idatzi zuen, Nick Bray eta Uxue Alberdiren testuak Barbara Stammelen erakusketan eta Alvaro Matxinbarrenarena Mikel Lasaren katalogoan. 2013an, Nekane Aranbururen testua argitaratu zen Dora Salazarren katalogoan eta Mikel Lertxundirenak eta Miren Agur Meaberenak Gonzalo Txillidarenean. 2012an, Fernando Golvanoren testua Iñaki Olazabalen erakusketarako, eta 2011n Edorta Kortadiren testua Julian Valverderen erakusketarako. Azkenik 2010an Fernando Golvanok eta Artemis Olaizolak testu bana idatzi zuten Don Herberti eskainitako erakusketaren katalogorako.

Bilboko Rekalde aretora pasatzen bagara, 2010. urtetik aurrera areto nagusian antolatu diren 22 erakusketetan bertako arte kritikarien testuak argitaratu dituztenak 9 izan dira: Leire Vergarak Abigail Lazkozen katalogoan (2010), Gerardo Elorriagak Bizkaiko Aldundiak emandako dirulaguntza jasotakoen erakusketa askotarikoan (2010), Iñaki Alvarezek Marina Nuñezen erakusketaren katalogoan (2011), Bernardo Atxagak Alfredo Alkaini buruzko testuan (2012), Jaime Cuencaren testua Akitaniako FRAC-en bildumako *Reiventer le monde* izeneko erakusketan (2013), Xabier Saenz de Gorbeak Ipiña-Bidaurrazaga bildumako *Memoria de la diversidad* izeneko erakusketan (2014), Haizea Barcenillak Naia del Castilloren erakusketarako eta Javier Gonzalez de Duranak eta Galder Reguerak Javier Riañoren erakusketarako (biak 2015ean).

Beste erakusketa motak ere antolatzen dira Rekalde Aretoan, horien artean erakusleihoan jartzen direnak. Artista gazteagoentzat pentsatuta daude eta katalogorik ez badute ere, testu laburrak argitaratzen dituzten esku orriak eskaintzen zaizkio ikusleari. Sarritan artistek beraiek idatzitakoak edo testurik gabe argitaratzen badira ere, kritikariei eskatutako testuak ugariak dira: Edu Hurtadok Ibai Leonen lanari buruz idatzitakoa adibidez, 2015ean, Xabier Saenz de Gorbeak Iker Serranori buruz, Lorea Alfarok Taxio Ardanazi buruz, Maite Garbayok Irantzu Anto-

nari buruz, guztiak 2014an, Jorge Nuñezek Rosa Parmari buruzkoa eta Klaas van Gorkumek *Research by Walking* askotariko erakusketan (biak 2012an).

Aparteko aipamena merezi dute Euskal Herriko erakundeek antolatzen dituzten sarien katalogoen testuak. Sari hauetan antolatzen diren erakusketetan profesionalek eta zaleek artearen egoera orokorra ikusteko aukera dute eta katalogoetan argitaratzen diren testuen bidez egoera horren analisia irakurtzeko aukera dago. Askotariko erakusketa hauetako katalogoak aztertuz gero garai zehatz bateko artearen kezkak, gabeziak eta indar guneak ezagutzeko aukera dugu.

Hiru lehiaketa aipatu ditzakegu euskal artearen egoera zein den jakiteko, bat orokorra eta artista guztiei zegokiena eta beste bi artista gazteentzat propio pentsatutakoak. Lehenbizikoa Eusko Jaurlaritzak antolatzen zuen Gure Artea saria dugu. Beste biak Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek antolatzen dituzte artista gazteak sustatzeko asmoz: Bizkaikoak Ertibil du izena; Gipuzkoakoa Artista Berrien lehiaketa deitzen zen, orain programa deritzolarik.

Gure Artea izenburupean Euskadiko Autonomia Erkidegoan tradizio eta garrantzi handia izan duen arte lehiaketa izan da 2008ra arte. Sari honen oinarrian lehiaketara aurkezten ziren artisten erakusketa zegoen. Honek Euskal Herriko arte garaikidearen egoera orokorra behatzeko aukera ematen zuen, ez baita erraza denbora tarte zehatz batean egiten ari denaren berri izatea. Bere aldeko eta kontrako alderdiekin Gure Artea sariek ondo asmatu dute egoerara moldatzen; hasieran urtero ospatzen bazen ere, 1996tik aurrera biurtekoa bihurtu zen, Xabier Saenz de Gorbeak egindako aldaketei esker.

Urte hartan Eusko Jaurlaritzak sarien sistema molda zitzan enkargatu zion Saenz de Gorbeari eta honek bi urtetik behin antolatu behar zen deialdia proposatu zuen. Erakusketak aurkeztutako artisten lanak jaso behar zituen eta maila bereko eta, aurrerantzean, diru kopuru bereko hiru sari banatuko zen aurkeztutako artisten artean. Aldi berean, diziplinen banaketa desagertu zen[9], hiru sariak orokorrak izateko. Saria antolatzearen ardura urtez urte aldatu behar zen eta arduradun horrek osatu behar zuen epaimahaia. Komisarioak, beraz, Euskal Herritik kanpoko hiru profesionalen laguntza izan behar zuen epaimahaia osatzeko. Aldaketa hauekin batera, sariaren hurrengo urtean erakusketa antolatuko litzateke irabazleekin, hiruen arteko erakusketa monografiko antzekoa muntatuz, Gasteizko Artium Museoan. Azkenik, erakusketa hau kanpoko areto batera eramateko saiakera egin behar zen, bertako artea Euskal Herritik kanpo hedapena eta ezagupena izateko asmoarekin.

Mota honetako Gure Arteak 2008. urtera arte iraun zuen, hau da, zazpi ekitaldi egin ziren Saenz de Gorbeak pentsatutako sistemaren arabera. 2011. urtetik aurrera Gure Artea diru kopuru zehatz bat banatzen duen sari arrunta bihurtu da Peio Agirrek egindako ikerketa eta proposamenaren moldaketaren ondorioz. Erakusketa egiteko aukera desagertu zenez, ez dago katalogorik eta testu kritikorik garaiko egoera orokorra ezagutzeko.

Kontuan izan behar dugu Gure Artearen deialdi bakoitzak arduradun ezberdina izan behar zuela eta erakusketa antolatzeaz gainera, katalogoaren argitalpe-

9. Aurreko urteetan lanak pintura, eskultura eta grabatua ataletan aurkeztu behar ziren.

naren ardura zuela. Beraz, mota horretako Gure Artea sariak izan zituen zazpi deialditan zazpi katalogo argitaratu ziren, komisarioaren sarrerako testuarekin. Lehendabiziko deialdia, 1996an, Xabier Saenz de Gorbearen esku egon zen, berak izan baitzuen sariak berrantolatzeko ardura. Deialdi mota berriaren aurkezpena egin zuen bere testuaren lehenbiziko atalean eta bigarren atal batean urte hartako erakusketan zeuden artelanen analisia.

1998an Fernando Golvanok hartu zuen Saenz de Gorbeak hasitako bidearen lekukoa eta honek ere artearen egoerari buruzko testua idatzi zuen katalogoan. Bere kasuan, artisten lan zehatzen azterketa orokorragoa egin zuen, une horretako arte sistemaren analisi interesgarria eginez ordea.

2000. urteko Gure Arteak Alicia Fernandezen ardura izan zuen eta honek ere testua idatzi behar izan zuen erakusketarako. *Beste urrats bat* izeneko testuan Gure Artea sariaren inguruko hausnarketa egin zuen.

2002an Javier San Martinek jaso zuen saria antolatzeko lana. Aurreko urteetako testuei jarraituta, San Martinek deialdiko erakusketaren analisia egiten du, lehiaketaren testuinguru orokorraren barruan.

2004ko ekitaldiak Peio Agirreren ardura izan zuen. Teorikoagoa den katalogorako idatzi zuen testuan euskal artearen gaineko ikuspuntua eskaintzen du. Aurkeztutako lanen analisian edo deskribapena egin beharrean, Euskal Herriko artearen sistemaren inguruko kontzeptua aztertu eta garai bateko euskal artearen ideiaren inguruko hausnarketa eguneratuari buruz idatzi zuen.

2006ko deialdia Ismael Manterolaren esku geratu zen. Katalogorako idatzitako testuan sarien inguruko analisi orokorra egiten da lehenbiziko atalean eta erakusketara aurkeztutako lanen analisia bigarren zati batean.

Azken edizioa, 2008koa, Miren Jaioren ardurapean egon zen. Katalogoan *Urrutiko ikusmugak* izeneko testua argitaratu zuen. Zatiz osatutako testu horretan garaiko artearen analisi oso erakargarria egiten du.

Ohikoa izan da argitaratutako testuetan sarien gaineko iritziak ematea eta erakusketan ikus zitezkeen lanen gaineko analisi kritikoak egitea. Kontuan izan behar dugu komisarioa epaimahaiaren buru ere izaten zela eta, nolabait, artista eta lanen aukeraketa justifikatzera behartuta zegoela.

Birmoldatutako Gure Artea sariaren harira, Eusko Jaurlaritzak lehiaketan saritutako artisten katalogo monografikoak argitaratzen hasi zen. Interesgarria izango litzateke katalogo hauetan azaltzen diren testuak aztertzea, nahiz eta askok sarrera kritikorik ez eduki (adibidez Pepo Salazarrena edo Jon Mikel Eubarena) edo artistak beraiek idatzitakoak izan (Edu Lopezena, adibidez). Sarritan deialdi bakoitzeko komisarioak aurkezpen testua idazten zuen hiru sarituen monografikorako, baina artistak beraiek eskatutako testu kritikoak argitaratzea ere ohikoa zen. Guztira hogeita bat katalogo argitaratu ziren, zazpi deialditako hiru sarituenak[10].

10. Ana Laura Alaez, Alberto Peral, Francisco Ruiz de Infante (1996ko sarituak), Edu Lopez, Javier Perez, Juan Carlos Roman (1998an), Javier Alkain, Manu Muniategiandikoetxea, Itziar Okariz (2000n), Jose Ramon Amondarain, Jon Mikel Euba, Pepo Salazar (2002an), Ibon Aranberri, Iñaki Garmendia, Azucena Vieites (2004an), Abigail Lazkoz, Juan Perez Agirregoikoa, Txuspo Poyo (2006an) eta Iratxe Jaio/Klaas Van Gorkum, Maider Lopez, Xabier Salaberria (2008an).

Gure Artea alde batera lagata, Euskal Herrian egon den arte lehiaketarik zaharrenetakoa Gipuzkoako Aldundiak antolatzen duen Artista Berrien Lehiaketa izan da. XX. mendeko 20ko hamarkadan hasitako lehiaketak epealdi ezberdinak eta moldaketa asko jasan ditu eta hori izan da gaur egunera arte iristearen arrazoia[11].

Azken moldaketak lehiaketa izatetik programa izatera pasa du 2012. urtean. Aimar Arriola izan zen aldaketa egitearen ardura hartu zuena eta honetatik aurrera programak bi deialdi ezberdin izan ditu: batean zazpi artista aukeratzen dira Koldo Mitxelenako erakusketa aretoan erakusketa egiteko, eta bestean artistek aurkeztutako proiektuen artean hiru aukeratzen dira ekoizteko. Erakusketaren antolaketa komisario baten esku dago orain eta parte hartutako zazpi artisten artean sari bat banatzen da, besteei ekoizpen lanetan diruz laguntzen zaien bitartean.

1995. urtetik aurrera Gipuzkoako Kutxarekin izandako elkarlanak eta bi urtetik behin antolatzeak katalogo txukunak eta duinak argitaratzeko aukera eman zuen. Katalogo guztietan inguru hurbileko kritikariek parte hartu dute, nahiz eta salbuespen batzuek ere egon eta kanpoko profesionalen ikuspuntua emateko aukera izan zuten, adibidez Liliana Albertazziren testua 1997ko katalogoan eta Piedad Solansena 2001ekoan. Beste guztietan bertako arte kritikari, komisario edo historialarien testuak argitaratu ziren, hurrenez hurren: aipatutako Adelina Moyarena 1995ean, Fernando Golvano 1999an, Ismael Manterola 2003an, Beatriz Herraez 2005ean, Itxaso Mendiluze 2007an eta Nekane Aranburu 2009an eta 2011n.

Azkenik, Artista Berrien Programa delakoak bi ekitaldi besterik ez du izan orain arte eta komisario lanak izan dituztenez, beraiek idatzitakoak dira katalogoko testuak. 2013-14koa aldaketen ardura izan zuen Aimar Arriolak idatzi zuen eta 2015-16koan Leyre Goikoetxeak idatzi du.

Katalogo hauetan guztietan argitaratu diren testuak oso ezberdinak izan arren, artista gazteen joerak eta artelanen nondik norakoak komentatu izan dituzte, horrek egiten dituela une bateko arte gaztearen egoeraren lekuko.

Azkenik, Bizkaiko Aldundiak gazteen artea sustatzeko erabiltzen duen tresna, dirulaguntzekin batera, Ertibil izeneko lehiaketa da. 1983. urtean sortu arren, aldaketa ugari jasan ditu artista gazteen lana sustatzeko deialdia izan arte. Hain zuzen, 2007. urtean erabaki zuten 40 urtetik beherakoentzako lehiaketa izango zela, nahiz eta hurrengo urtean 35 urtera jaitsi, gaur egun mantentzen den adina.

Hala ere, Gipuzkoako Aldundiaren aldean, Ertibilek oraindik hiru sari hierarkikoen sistema mantentzen du, nahiz eta lehiaketaren erakusketarako aukeratutako artista guztiei dirua eskaintzen zaien euren lanak ia sei hilabetetan Bizkaiko herrietako kultur etxeetako erakusketa ibiltarietan egotearen truke.

Ertibilek urteroko maiztasuna du eta lehiaketara aurkeztutako artisten aukeraketaren bidez ebazten da. Epaimahai batek 20 artelan inguru aukeratzen ditu

11. Adelina Moyak lehiaketaren azterketa egin zuen 1995. urtean argitaratu zen katalogoan. Bertan hiru epealdi desberdindu zituen: lehenbizikoa 1920tik 1935era, bigarrena 1942tik 1959ra, eta hirugarrena 1977tik 1993ra. Hauei beste bi gehitu beharko genizkioke, 1995etik 2011ra, lehiaketa bi urtetik behin deitzen zen eta Aldundiak Gipuzkoako Kutxarekin batera antolatzen zuen. Azken fasean gaude gaur egun, lehiaketa izatetik programa izatera pasa da eta deialdia bi urtetik behin egin arren, programak bi urteak hartzen ditu, bat erakusketa orokorrerako eta bestea hiru lanen ekoizpenerako.

urtero eta Bilboko Rekalde aretoan erakusten dira Bizkaiko beste herrietako ibilbidea hasi baino lehen.

2011. urtetik aurrera erakusketak katalogoa izan du, artisten lanekin eta sarrerako testu kritiko batekin. Testu hauek inguruko kritikoei enkargatzen zaizkie, lehenbiziko biak, 2011koa eta 2012koa Xabier Saenz de Gorbearen esku egon ziren, hurrengo hiru urtetakoak Jaime Cuencaren testuekin argitaratu ziren eta azkenak, 2016. urtean, Mikel Onandiaren testua darama.

Testu hauek ezberdinak dira, baina ia beti momentuko artearen analisia edo egoeraren berri ematen dute eta ezinbesteko iturri bihurtu dira azken urteetako Euskal Herriko artearen berri jakiteko. Salbuespen moduan 2012. urtean Xabier Saenz de Gorbeak argitaratutako *Artea Bizkaian (1939-2010)* izenburua daraman testua aipatu behar dugu. Testu luzea ikerketa lanaren barruan sailkatu daiteke, garai historiko zabal baten gertakizunak aipatzen baititu.

Atal honen hasieran esan dugun bezala, zaila da Euskal Herrian argitaratu diren katalogo guztien azterketa zehatz bat egitea, arte zentro eta kultur etxe askok argitaratu dituztelako artisten erakusketa monografikoen eta askotariko artisten katalogoak. Batzuek lan interesgarria bete ondoren desagertu dira, Gasteizko Amarika aretoarekin gertatu zen bezala. Beste batzuek lanean jarraitzen dute diru murrizketak izan arren. Kultur etxe batzuek oraindik ez zeuden arte zentroen lana bete zuten garai zehatzetan, adibidez Basauriko Ariz dorreko erakusketa aretoa. Bertan argitaratutako katalogotxoak liburu formatura iristen ez ziren arren, arte kritikariei testuak idazteko eta argitaratzeko aukera ematen zitzaien. Beste zentro askok lanean jarraitzen dute edo jarraituko dutela ematen du, nahiz eta etorkizuna ziurtatuta ez izan, tartean Uharteko arte garaikideko zentroa. Zentro honek 2008 eta 2009. urte bitartean antolatu zituen erakusketak eta argitaratu zuen aldizkariak Artelekuren tokia beteko zuela zirudien. 2008. urtean zazpi erakusketen katalogoak argitaratu zituen eta ia guztiak bertako arte kritikarien testuak zituzten. Adibidez Miguel Pueyoren erakusketaren katalogoak Javier San Martinen eta Pedro Salaberriren testu bana zuen, Veronica Eguarasenak berriz Xabier Saenz de Gorbearena eta Hugo Canoilarena Chus Martinezena[12]. 2009an Patxi Araujoren erakusketako katalogoak Gregorio Diaz de Ereño eta Xabier Erkiziaren testuak zituen artistaren testuekin batera, Patxi Aldarenak Iñaki Arzozen testuak zituen eta Nerea de Diegoren erakusketak Maite Garbayoren testuekin argitaratu zen. 2010ean Javier San Martinek hiru katalogotako testuak idatzi zituen: Paco Polanena, Fermin Jimenez Landarena eta Dick Rekalderena. Azken urteetan aktibitatea asko jaitsi bada ere, 2014an Patxi Ezkietaren katalogoan Javier San Martinen testua argitaratu zen.

Aldi berean, *DHuarte* izeneko aldizkariaren lau zenbaki argitaratu ziren 2008tik 2009ra arte. Lau-hilabetekaria izateko sortutako aldizkaria Carles Guerraren zuzendaritzapean egon zen, eta kolaboratzaileen artean Euskal Herriko arte kritikariek tarte gehiegirik ez zen izan. Azken aleak Fernando Golvanoren eta Ricardo Amasteren artikulu bana zuen.

12. Kontuan izan behar dugu 2002. urtetik 2005. urtera arte Chus Martinezek Euskal Herriarekin harremana izan zuela Rekalde aretoko zuzendari artistikoa izan baitzen.

Nafarroan jarraituta, kontuan hartu beharrekoak dira, Uharteko zentroarekin batera, Iruñako gotorlekuan antolatutako arte garaikideko erakusketak. Garai batean ekimen gehiago antolatu baziren ere, azken urteetan diru murrizketek katalogoen argitalpenak gutxitu dituzte. Labea izeneko espazioan artista aktiboen erakusketak antolatzen ziren bere katalogotxoekin (askotan ez ziren zortzi orriko argitalpen xumera ere iristen), baina aukera ematen zuen artista hauei buruzko testu kritikoak argitaratzeko.

Bukatzeko, garai berri baten aurrean egon gaitezke Donostiako Tabakalerarekin zabaltzearekin. Kultura garaikideari eskainitako zentro horrek arte erakusketa eta topaketak antolatzen hasi da. Ez dakigu argitalpenen irizpideak zein izango diren eta nolako katalogoak argitaratuko dituen, argitaratu behar baditu behintzat.

Era berean, Donostiako arte garaikideko eskaintza San Telmo museora bueltatuko dela dirudi. Azken urtean arte garaikideari eskaini dizkion erakusketak Europako kultur hiriburu izendatzearen ondorio izango diren edo norabide berri baten hasiera izango den ez dago argi. Horiez gainera, ez dakigu argitalpen politika zein izango den edo tartea egingo dien bertako kritikariei.

3. Konklusioak

Euskal Herriko arte kritikak garai oparo xamarra bizi izan du Francoren heriotzaren geroztik. Kultur ekimenen bultzada eta babesa handia izan da 80ko eta 90eko hamarkadetan, bai herritarren aldetik, bai erakundeen aldetik ere. Arte garaikidearen gaineko interes orokorrak erakusketak eta arte ekimenak bultzatu ditu eta horrek ariketa kritikoa eskatu du, horregatik arte kritikak presentzia handia izan du komunikabide orokorretan.

Azken urteotan, ordea, nazioarteko joerak jarraituta, prentsa kritikak garai txarrak bizi ditu prentsaren krisi orokorraren barruan. Hein batean, plataforma digitalak tokia kendu dio garai bateko arteaz hausnartzeko modu horri. Blogak eta aldizkari digitalak betetzen ari dira gero eta gehiago prentsa kritikak betetzen zuen rola. Artista eta kritikari edo profesional gazteek (eta ez hain gazteek) normaltasunez eta askatasun handiz hartzen dute internetek eskaintzen duen aukera arteari buruzko iritzi kritikoak plazaratzeko. Hala ere, plataforma digital berriek eskaintzen duten aukera zabal eta merkea kontutan hartuta, faltan botatzen da Euskal Herritik sortu eta kudeatutako errekurtsoren bat gehiago.

Gabeziarik argiena, ordea, aldizkari espezializatuena da. Euskal Herriko sistema orokorraren neurri txikia onartuta, ulertzekoa da paperezko ereduek bizitza zaila izatea. Lehen aipatu bezala, sarea izan zitekeen halako ekimen bati irteera emateko konponbide bat, beharbada bertako zein beste testuinguruetako kritikak eta gogoetak uztartuz.

Oraindik ere desberdindu egin behar da gaztelaniaz eta euskaraz argitaratutako arte kritikaren artean. Lehenak prestigio eta garrantzia handia izan duela esan behar da, batez ere Espainiako arte sistemarekin parekatu daitekeelako. Euskaraz idatzitakoak, aldiz, autonomia eta askatasun handiagoa izan badu ere, ez du lortu erakundeen eta sistemako beste kideen (arte kritikari, artista, galerista, e.a.) onarpen normalizatua. Zentzu horretan, instituzio eta museoetatik bada egin be-

harreko normaltze-lana, euskaraz ekoiztutako gogoeta hori zabaldu eta ezagutarazteko. Katalogoetarako bertako idazleak gonbidatzea eta testu guztiak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea aurrerapauso handia litzateke jada.

Dena dela ez dakigu kultur esparruan egindako diru murrizketek nolako eragina izango duen Euskal Herriko arte sisteman; ikusi beharko da autonomoagoa egingo duen Espainiako arte sistemaren aurrean edo, aldiz, besterik gabe irentsita geratuko den Espainiako sistema orokorrago batean. Hala ere, Espainiako kultur sistemak jasan duen atzerapenak ez du fagozitazio prozesu batera eramango gaituela pentsatzeko zentzurik ematen.

Azkenik, kritikari gazteen belaunaldi bat abian bada ere, lagungarria litzake bai plataforma gehiagoren sorkuntza, baita esperimentazio eta saiakerarako behinbehineko esparruen eraketa, belaunaldi honi autoreak gehitu eta haien zein beste belaunaldietakoen arteko elkartrukea sustatzeko.

Beraz, Xabier Saenz de Gorbeak orain dela 30 urte hasitako bideak jarraipena izan du. Euskal Herriko arte produkzioa ugaria eta kalitate handikoa izan da eta balorazio kritikoaren laguntza izan du Espainiako eta nazioarteko artearen produkzioarekin parekatzerako orduan. Une honetan bultzada bat eskertuko zukeen arren, oinarri sendoak ditu, produkzio azpimarragarria izan du, eta XXI. mendeak eskaintzen dituen baliabide berriak zein urteetatik datorren esperientzia eta jakituria uztartzen jakinez gero, indarrez jarraituko du kritika horrek aurrera.

Argazkia: Sonia Rueda

Bibliografia

AGIRRE, Peio. Crítica y metacomentario. http://peioaguirre.blogspot.com.es/ (2016eko irailak 20an kontsultatua)

BARCENILLA, Haizea. "Sarrera: Hitzen hatzak"; ONANDIA, Mikel. *Arte kritika eta flamingoak zeru berdean (2009-2015)*. Sans Soleil argitaletxea, Bilbo, 2015.

ONANDIA, Mikel. *Arte kritika eta flamingoak zeru berdean (2009-2015)*. Sans Soleil argitaletxea, Bilbo, 2015.

RODRIGUEZ, F. Arturo. *Zutabeak*. Ensoñaciones Tobogan eta Consonni. Bilbo, 2013

SAENZ DE GORBEA, Xabier. *Desde Bilbao: artes plásticas 1989-1991*. Eguzki. 1991.

—. *Arte y artistas en el País Vasco 2000*. s.n. 2001.

—. *Arte y artistas en el País Vasco 2001*. s.n. 2002.

VILLOTA, Gabriel. *En, desde, por contra. Crónicas vascas del arte a comienzos de siglo*. Arteleku, Donostia, 2008.

VIVAS, Isusko. "Arte-kritika prentsan". *Miscelánea de Arte Contemporáneo Vasco*. Universidad de Deusto, Bilbo, 2001.

"Zer hizkuntzatan mintzo da artea?", Berria, 2016/02/05 http://www.berria.eus/paperekoa/1812/030/001/2016-02-05/zer_hizkuntzatan_mintzo_da_artea.htm (2016/09/17an kontsultatua).